


**Bitasun juridikoa Bilboko hiribilduan zabaltze
prozesuan (1860-1959)**

ZUZENBIDE GRADUA 2021/2022

eman ta zabal zazu



UPV EHU

Egilea: Sergio Sanz Melguizo

Zuzendaria: Imanol Merino Malillos

AURKIBIDEA

0. LABURPENA.....	2. orr.
I. SARRERA.....	2. orr.
II. BIZKAIKO ETA BILBOKO BILAKAERA JURIDIKOA.....	6. orr.
2.1 Bizkaiko bilakaera juridikoaren laburpena (1300-1850)	
2.2 Bizkaiko foraltasunaren krisialdi garaian (XIX. mendearen amaiera)	
III. BITASUN JURIDIKOA BILBOKO HIRIBILDUAN (1860-1959).....	23. orr.
3.1.Doktrina.....	24. orr.
- Carlos de la Plaza (1859-1918)	
- Gregorio de Balparda (1874-1936)	
- Nicolás Vicario de la Peña (1866-1941)	
- Rodrigo Jado y Ventades (1855-1922)	
3.2. Bitasuna epaitegietan.....	37. orr.
- Auzitegi Gorena 1927ko ekainaren 2ko Epaia	
IV. ONDORIOAK.....	41. orr.
V. BIBLIOGRAFIA ETA WEBGRAFIA.....	45. orr.

0. LABURPENA

Lan honen helburua Bizkaiko berezko dualismo juridikoa aztertzea da, Bilboko hiribilduan batez ere, Abando eta Begoñako elizateen anexionari dagokionez. Probintzia honetan, bi legedi lurralde berean elkar bizi ziren, izan ere, lur lauan, Bizkaiko Foru Berria aplikatzen zen; eta jaurerriaren hiribilduetan, berriz, Gaztelako Zuzenbidea erabiltzen zen, "Cartas pueblas" eta Alcalako Ordenamendua ezarri zuen iturrien lehentasun ordena zirela eta. Azterlan honetan, nire zeregina bi Zuzenbide horiek praktikan elkarrekin bizi ziren garai historiko eztabaidagarri batean aztertzea izango da (XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran). Garai hartan, Espainiako Kode Zibila argitaratzeko saiakerak eta, horren ondorioz, Bizkaiko Zuzenbide pribatuaren Apendizea egiteko lanak eman ziren. Gainera, kontuan izan behar da Espainian uniformismo juridikoaren momentuan kokatzen dela, eta foruei zenbait zailtasun azaldu zitzaizkien garai hartan. Beraz, egoera hori Bilbok izendatutako auzo horiek anexionatu zituen garaian nola eman zen erakutsiko dut.

Gako hitzak:

Bitasun juridikoa; indarregotasun lurraldetarra; anexo; Bizkaiko Foru Berria; hiribildu; Bilbo.

I. SARRERA

Bizkaiko lurraldearen dualismo juridikoa fenomeno berezi bat da, normala baita egoera hori estatu baten barne-Zuzenbidearen eta bertan aplika daitekeen Nazioarteko Zuzenbidearen fenomeno juridikoa izatea. Baina, Bizkaiko kasuan, lurralde ez oso zabal bat dena (adierazgarria da aipatzea, Bizkaia Espainiako Estatuko bigarren probintzia txikiena dela, Gipuzkoaren atzetik eta Arabaren aurretik), bi legeri aplikagarri ezberdin daude aspalditik: Gaztelakoa/Espainiako Estatukoa eta Bizkaiko Forua. Fenomeno juridiko honek egoera bereziago bat eragin zuen XIX. mendearen amaieran Bilbo bezalako kasuan, garai hartan hiribildu horrek bere hedapen-proiektuak hasi zituelako. Horregatik, hainbat elizate anexionatu zituen: Abandokoa eta Begoñakoa, esate baterako. Kasu honetatik nire lanarentzat

erakargarriena dena, honen ondorioz sortutako egoera juridikoa da, Bilbo barruan emandako Zuzenbideen bitasuna, hain zuzen ere.

Nire kasuan, Bizkaian dualismo hori egotea baino, atentzioa ematen didana, probintziako hiribilduek aurrera eraman zituzten zabaltze-proiektuen eta fenomeno horrek izan zezakeen efektu juridikoak izan dira. Agian ez nion arreta handirik eskaini, azken batean ulertzen bainuen lurralde historikoan bi arau-gorputz desberdin egon arren, hiribilduetan Espainiakoa aplikatzen zela, eta elizateetan Bizkaiko Forua, baina horrek ez zuela inolako konplikaziorik ekartzen. Ezjakintasun honi ere, gehitu beharko litzaioke ni Enkarterrikoa naizela, zehazki Balmasedakoa, eta nire eskualdeak leku juridiko-propio bat izan zuen. Hiribildu baten bizi izan arren, nireak ez zuen inolako anexiorik aurrera eraman inguruko kontzejuei dagokienez, eta horregatik nahiko adierazgarria egiten zait beste hiribildu batzuetan ematea, eta are gehiago, honek gatazka juridikoak eragitea.

Esaten ari nintzen bezala, lan honekin hasi aurretik, nire buruan errealitate bakarra baino ez nuen ulertzen, udalerrri baten barruko lege bakar baten aplikazioa. Gainera, nire hiribilduan emandako bitasun juridikoa ez zen Bilbon bezalakoa, Forua soilik aplikatzen baizitzaien mendialdean zeuden baserriei. Horregatik, nahiko urrun geratzen zitziadan niri bitasun juridikoaren kontzeptua udalerrri baten barnean. Beraz, lan honetan zehar bi arau-gorputz ezberdin izateak zekartzan zailtasunen eta errealitatearen informazio ugari biltzeko aukera izan dut, baita emandako konponbidei buruz ere. Gaur egungo arauak bitasun juridiko horren erakusgarriak dira ere. Adibidez, 5/2015, ekainaren 25eko Euskal Zuzenbide Zibilararen Legean, bikoiztasun horren arrastoa aurkitzen da, Bizkaiko lur lauari oraindik erreserbatzen baitizkio instituzio pribatu batzuk bere biztanleentzat¹. Hori 61. eta 65. artikuluetan erakusten da, non tronkalekotasunaren aplikazio-eremua zehazten den. Alde batetik, 61. artikulua adierazten du tronkalitateak Bizkaiko Foruaren mendeko udalerrietan bakarrik iraungo duela, 1630eko Konkordiaren bitartez Forua hartu ez duten hiribilduak eta Urduñako hiria kanpoan utzita. Beste aldetik, 65. artikulua, aurreko artikulua kontuan hartuta, honako hau ezartzen du: "Hiribilduek eta hiriak landutako eta Bizkaiko Batzar Nagusiek 1994ko maiatzaren 4an onartutako planoetan mugatutako lur lauako zonan soilik arautuko da tronkalekotasuna"². Beraz, dualismo juridikoak Bizkaiko probintzian bizirik

¹ 5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzkoa. Estatuko Aldizkari Ofiziala

² "Bizkaiko Lurralde Historikoko forugabeko lurraldeen mugaketak, 1994ko maiatzaren 4ko Akordioari atxikiak" Bizkaiko Foru Aldundia.

jarraitzen zuela 2015. urteraino ukaezina da, eta lege horrek irtenbide bat eman nahi izan zion, auzotasun zibilaren bitartez³. Auzotasun zibil horrekin, administrazio-arloan eta Zuzenbide pribatua eremu autonomikora berdintzen ditu forudunak eta ez forudunak diren udalerrak.

Bilboko errealitate juridikoa nahiko zirragarria izan da. Alde batetik, hiribildu bat zegoen, non Espainiako Zuzenbide pribatua aplikatzen zen; eta, bestetik, elizate batzuk non, anexionatu baino lehen Zuzenbide aplikagarria Bizkaiko Forua zen. Hiribilduen sortze garaitik, Bizkaiko dualismoak buruhaustek ekarri zituen Gateztelako eta ondorengo legegilei, eta baita bizkaitarrei ere, Zuzenbidearen zenbait alorretan aplikatu beharreko araua zein izango zen erabakitzeko orduan. Beraz, logikoa da pentsatzea gertaera hori hainbat eztabaiden abiapuntua izan zela garai hartan askotariko instituzioen artean (administrazioa, magistratuak, epaileak, legelariak...). Honi dagokionez, pertsonalki, Zuzenbide pribatua iruditzen zait interesgarriena, nire aburuz Zuzenbide horretan modu zehatzagoan islatzen baita lurralde baten egoera soziala eta politikoa, eta, era berean, lurralde horretan gertatzen dena. Normalean, Zuzenbide pribatutzat berezkoak zaizkion instituzioak ulertzen da, adibidez, ezkontza edo testamentua. Lan hau Zuzenbide pribatuaren indarregotasun lurraldetarran zentratuko da. Kasu honetan, bilatuko dudana, udalerrri batean legeri bakar bat hautatzeko eta aplikatzeko ekarri izan zituen gatazkak ikustaraztea izango da.

Esan dudan bezala, nire aburuz Zuzenbide pribatuak islatzen du hobeto gizarte baten errealitate soziala, baina herri horren mugak ere kontuan hartu behar dira, askotan ez baitaude argi, eta hori gertatzen da kasu honetan. Horrela, Zuzenbide bat aplikagarri izango da lur-esparru zehatz batean, baina arazoa kasu honetan sortzen da, lurralde berean biltzen diren legeriak bi direnean, eta erabaki behar denean zein den aplikagarria lurralde jakin horretan. Gaur egun, 2015eko Euskal Zuzenbide Zibilaren Legeak Foruak eta Kode Zibila arautu behar dituzten lurralde-eremuei irtenbide eman die, baina Espainiako Kodegintza Zibilaren garaian eta Bizkaiko Foru Zuzenbidearen Eranskinaren garaian, konpondu beharreko arazoa izan zen. Horrela, foru-zuzenbidea krisian zegoen garaian, bizkaitarrentzat Foruak lekua izango zuen lurralde bat ezartzea garrantzitsua izan zen. Arau baten indarregotasun lurraldetarrak lurralde horren nortasun juridiko propioa ere ezagutarazten duela, eta horrekin esan nahi dut

³ GIL RODRÍGUEZ, Jacinto: *Manual de Derecho civil vasco*, Bartzelona: Atelier. 2016, 156. orr.

Forua, lur lauaren nortasun propioaren erakuslea ez ezik, horren nortasun juridikoa ere funtsatzen duen araua dela.

Dualismo juridikoak Bilbon eragin zituen konplexutasunak eta egoera gertutik ezagutzeko, beharrezkoa da hainbat egileren lanak aztertzea. Nagusiki, autore horiek gaiari buruzko adituen teoria juridikotik haratago doaz, era aktibo batean parte hartu baitzuten. Adibidez, Carlos de la Plaza Bizkaiko Zuzenbide zibilaren Apendizearen proiektuaren egile garrantzitsuenetariko bat izan zen, baita abokatu ezagun bat ere, udalerrri baten barruan dualismoarekin amaitu ahal izateko pausu batzuk eman zituena. Ildo beretik, Gregorio de Balparda Bilboko alkate ospetsu bat izan zen, eta gertutik ezagutu zuen dualismo honen eragina. Adierazi nahi dudana da, autore horien gaiari buruzko lanen eta iritzien garrantzia funtsezkoa dela lan honetan jorratzen den gaia ezagutu ahal izateko, ez soilik honi buruz zuten ezagutzagatik, baita bere parte hartze mailagatik ere.

Dualismo juridikoaren alor pribatuan zentratu nahi izan arren, honen egoera ondo ulertzeko beharrezkoa da erakunde publikoena ere kontuan hartzea. Jakinaenez, administrazioari eta Zuzenbide publikoaren eremuan, Bizkaiko foraltasuna desagertu zen 1876ko uztailaren 21eko legearen eta honen ostean etorri ziren neurrien bidez. Horren ondorioz, Foruaren instituzio pribatuak defendatu behar izan ziren, une honetan Espainiako historiaren egoera oso zentralista baitzen. Hau da, Estatuak lege bakarra eta Konstituzio bakarra inposatu nahi zuenez, eskualdeetako eta Estatutik kanpoko legeria oro ezabatu nahi izan zuen (teorian, gutxienez). Horrela, legelarien jarrera ulertzen da, batez ere foralisten jarrera; zeren, liberalak foruak erasotzen ari ziren une batean, berezko arauen defentsa eta idazketa beharrekotzat zituzten, batez ere arlo pribatuan, foru-zuzenbide publikoa ezabatu egin baitzen⁴.

Azkenik, hizkuntzari dagokionez lan hau idatzi ahal izateko aurkitu ditudan zailtasunak azpimarratu nahi nituzke. Testu gehienak gazteleraz idatzita daude, XIX. mendearen amaierako eta XX. mendearen hasierako gai honi buruzko testuak euskeraz aurkitzea oso zaila baita, egile garrantzitsuenek hausnarketak gazteleraz idazten zituzten eta. Honek, itzulketak nik neuk egitera eramanez. Egungo autoreen kasuan, egoera ez da berdina, baina egia da, askok gaztelera erabiltzen dutela beraien testuak egiteko, eta berriz ere

⁴ MONREAL ZIA, Gregorio: “La Ley abolitoria de Fueros de 21 de julio de 1876 (antecedentes y paso por el Congreso)”, *Iura vasconiae*, 10. zenbakia, 2013, 35. orr.

itzulketak nik egin behar izan ditut. Hori esanda, aztergai den egoera testuinguruan jartzeko unea da, bilakaera historikoaren bitartez. Horretarako, Bilboko eta Bizkaiko hainbat historialari baliatuko ditut, lan honen bidez aztertu nahi ditudan gertaeretara eramaten gaituzten baldintzak hobeto ulertu ahal izateko. Beraz, testuinguruan kokatzeko, Bilbo eta Bizkaian barne emandako aldaketa juridiko garrantzitsuenen ibilbidea azaltzea dagokit.

II. BIZKAIKO ETA BILBOKO BILAKAERA JURIDIKOA

Nire aztergaia, XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran eman zen, baina zehatzago argitzeko eta arlo juridikoan sakonago barneratzeko, aztertzen ari naizen egoeraren sustrai historikoa ulertu behar da. Hasi aurretik, Allende Salazarrek (1814-1890) Bizkaiko dualismo juridikoari buruz esan zuenarekin hastea komeni duelakotan nago, horrela deskribatzen baitzuen: "Beste dualismo arraro bat da, askoz ulergaitzagoa, eta askoz arraroagoa; izan ere, munduko adibide bakar bat baino ez dugu ezagutzen, eta Bizkaiko legeria pribatuaren dualismoa da"⁵. Une honetan, dualismo juridikoa zer den argituta dago, halaber, Bizkaiko berezko Zuzenbidea garai hartako Bizkaiko jaurerriaren lur lauan aplikatzen zela, eta Zuzenbide gaztelarra hiribilduetan, Bilbo hoiaren artean; beraz, Koroako/Estatuko Zuzenbide komuna aplikatzen zitzaien, baina noiztik?

2.1. Bilboko bilakaera juridikoaren laburpena (1300-1850)

Erdi Aroan, Bilbo Bizkaia nuklearreko parte zen, hau da, lur laukoa⁶. Garai horretan, Bizkaiko jaurerria hiru gorputz juridiko-politiko osatzen zuten: Enkarterriek, Durangaldeak eta lur lauak. Hemen aplikatzen zen Zuzenbidea bertoko ohiturek, usadioek eta epaien epaiek osatzen zuten, zeinengandik Bizkaiko Forua sortuko zen. Ezin da ziur jakin ordenamendu hau noiz sortu zen, hiribilduak sortu aurretik ala ondoren, baina bai hiribilduetan aplikatzen ez zela. Labayruk dioenez, hiribilduak foru kontrakoak ziren, eta hauek ez zituzten lur lauaren Foruak jasotzen, ez baitzuen balio harresiaren barruan zegoen biztanleria mantentzeko;

⁵ ALLENDE SALAZAR, Ángel: "El dualismo en la legislación civil de Vizcaya", *Revista general de legislación y jurisprudencia*, 27. tomoa, 54. zenbakia, 1879, 72. orr.

⁶ MONREAL ZIA, Gregorio: *Instituciones públicas del Señorío de Vizcaya (hasta el siglo XVIII)*, Bilbo: Bizkaiko Diputazioa, 1973, 13-15.orr. Monrealek kasu honetan "Alfontso III.-aren Kronikari" eta "San Millanen botu faltasuei" egiten die erreferentzia Bizkaia nuklearra deskribatzeko. "de rivo Galharraga usque in flumen Deva, ID EST TOTA VIZCAYA..."

egiatan, hiribilduen onurako Gaztelako Zuzenbidea aplikatzea zen eraginkorragoa⁷. Aldi historiko honetan, ez zegoen ezer nabarmengarririk etorkizuneko hiribilduaren inguruan, aztergai den gure gaiari dagokionez behintzat. Horregatik, Bilbora joango naiz zuzenean hiribildu bihurtu zen urtera.

1300ean, Bilbok bere Hiri Gutuna jaso zuen Diego López de Haro Bizkaiko jaunaren eskutik. Dokumentu horrek hiribildu bat sortzea zekarren, kasu honetan Bilbo, Bizkaiko lehena izan ez arren, bilakaera handiena jaso zuena izan zen. Jaurerriaren barruan hiribildu bat sortzeko hasierako arrazoia hiri-ekonomiaren gorakada eta Atlantikoko merkataritza sustapena ematea zen, nabigatzaileak, arrantzaleak eta merkataria erakarri baitzituen⁸. Fundazio gutunekin eta hiribilduetan Logroñoko Forua aplikatzearekin batera, Alfontso XI.ak Gaztelako iturri juridikoaren lehentasun-ordena ezarri zuen Alcalako 1348ko Ordenamenduaren bitartez, honela utziz: erregearen ordenamendua; lege municipalak, Zazpi Partidak eta Erregearen interpretazioa. Zentzu berean, ulertu behar da biztanleriaren hazkundeak ere barne arazo asko sortu zituela, honek behar baitzuen administrazio konplexuago bat; eta irtenbide bezala, Gaztelako Zuzenbidea hiribilduen antolatze sistema erarik aiposena bezala azaldu zen⁹.

En el nombre de Dios et de la Virgen bienaventurada Sancta María. Sepan por esta carta quantos la vieren e oieren cómo yo Diego López de Haro, señor de Vizcaya, en uno con mio fijo don Lope Díaz et con plazer de todos los vizcaínos, **ffago en Biluao de parte de Begoña nuevamente población e villa que dicen el puerto de Biluao.**

(...)

Et que ayades cumplidamente el ffuero de Logroño. Et que vos mantengades por él noblemente et bien en justicia et en derecho así en homeçiellos et en caloñas et en todos bonos husos et bonas costumbres como el ffuero de Logroño manda¹⁰.

Nolanahi ere, ezin zaio hiribilduaren sorrera eta hazkundera bere ekonomiaren eta biztanleria gorakadari soilik egotzi. XIV. eta XV. mendeetan, Leinuen gerrak bere arrantzia izan zuten ere. Teofilo Guiardek (1876-1946) honela deskribatu zuen Bizkaiko jaurerriaren egoera: "Leinuen konflagrazioaren garaia zen, eta Nerbion uberrimotik Nivelte ertzeraino,

⁷ DE LABAYRU Y GOICOECHEA, Estanislao Jaime: *Historia General del Señorío de Vizcaya*. Madril: Librería de Victoriano Suarez, 1895, 397-398. orr.

⁸ MONREAL ZIA, Gregorio: *Fuentes del Derecho Histórico de Vizcaya*. Madril: Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2021. 43. orr.

⁹ GUIARD LARRAURI, Teófilo: *Historia de la Noble Villa de Bilbao II. alea*, Bilbo: Imprenta y Librería de José de Astuy, 1905-1912, 12. orr.


¹⁰ MONREAL ZIA, Gregorio: *Fuentes del Derecho...*, op. cit., 53. orr. Letra lodia nik jarritakoa.

burdinaz jantzitako banderizoak eta harresien eta gazteluen hondakinen gainean galopean, lurra odolezko putzu erraldoi batean bihurtzen zuten"¹¹.

Bilboko hiribildua 1300, urtean sortu zen, hango biztanleek eskatuta. Bilbon garai horretan zegoen egoera ulertzeko, funtsezkoa da Hiri Gutunaren zati batzuk aztertzea, bai 1300koa bai 1310ekoa. Une horretan eman baitziren dualismo juridikoaren lehen aztarna hiribilduak Logroñoeko forua jaso baitzuen. Beraz, bi Gutun horietan jorratzen diren hiru faktore nagusitan zentratuko naiz: muga jurisdikzionalak; Bilbo hiribildu jaio berriari aitortutako pribilegioak; eta inguruko lur lauaren egoera (bereziki, Abando, Deustu eta Begoñako elizateak). Hiribilduaren sortze-dokumentuan, honen jurisdikzio-mugak ezarri ziren, hau da, zeintzuk ziren Bilboren mugak, eta, beraz, non izango zen momentu horretatik aurrera Gaztelako Zuzenbidea aplikagarri. 1300ko Gutunak honela deskribatzen ditu:

Et otorgo vos que ayades por términos desde como toma el puntal de ffondón de Çorroça, do se yuntan amas las aguas, ribera del agua arriba que viene de Valmaseda, ffasta el arroyo que uiene por ssomo del campo de Çornoça que es en derecho de Percheta. Et dende do pega el arroyo d'Açordoyaga. Et dende, assí como va el cerro a arriba ffasta el sel de Eguiluz et asta Fagassarri et a Olaluçeta et a Buana de ssuso, así como viene por çima de la ssierra. Et al uado de Echauarri. Et dende, de como ua el camino de Echauarri ffasta çima la ssierra de Ganguren. Et dende, ffasta'l puntal de ffondón de Deustu en derecho de Luchana, así como auedes parados los términos e amojonados con tales los de Çamudio et de Alffoz d'Uriue. Con todas las anchuras et egidos et montes et aguas et logares que en los dichos términos ha¹².

1. FIGURA: 1300. urteko Bilboko plano.



Iturria: e-ribera.com

¹¹ GUIARD LARRAURI, Teófilo: op. cit., 5-6. orr.

¹² MONREAL ZIA, Gregorio: *Fuentes del Derecho...*, op. cit. Letra lodia nik jarritakoa

Hala eta guztiz ere, hiribilduaren ertzak ezartzeko eta haren jurisdikzioa inguratzen zuten elizateen jurisdikziotik bereizteko testua oso zehatza ez izateak arazoak ekarri zizkien laster Bilboko biztanleei, mugak Abando, Begoña eta Deustuko lurralde-eremu batzuk hartzen baizituen¹³. Hiribilduaren banaketari erreparazio bizia eman nahi nioke. Honela, une horretan, hiribilduaren lehen mugak idatziz ezarrita agertu ondoren, 1300eko eta 1310eko Hiri gutunean nabarmendu nahi dudan bigarren zatia aztertu behar da.

Adierazi dudan bezala, pribilegioak funtsezkoak izan ziren hiribilduan merkataritzan eta ekonomiaren bilakaeran moldatzeko eta etorkizunean izango zituen hobekuntzetarako. Horretarako, bi Gutunak ikusi behar dira; alde batetik, Diego López de Harok hainbat pribilegio eman zizkion hiribilduari; eta beste aldetik, María Díaz de Harok, bere ilobak, 1310ean Gutun hori berretsi zuen, pribilegio batzuk gehitzen. Lehenik eta behin, 1300ean, Diego López de Harok bilbotarrak karga multzo batetik libratu zituen eta bi pribilegio eman zizkien: asteroko merkatua izatea eta Portugaleteko barrara hurbiltzen ziren itsasontzietan zeharkatzeko askatasuna. Horrek, azken batean, Bilboko itsasadar osoko jurisdikzioa eta Nerbioiko itsas trafikoaren ia bereganatzea ekarri zituen hiribilduarentzat; beraz, bilbotarrek libreki erabil zezaketen itsasadarra, eta inork ezin zien inolako zergarik kobratu Bilbora zihoazen edo handik ateratzen ziren itsasontziei. Bere osabak emandako Gutuna bezain garrantzitsua da María Díaz de Harok emandakoa. On Diegoren ilobak bigarren fundazio bat egin zuen, baina hamar urte lehenago osabak esan zuena berretsi baino ez zuen egin, pribilegio horiei beste hiru gehituta¹⁴. Hauek hurrengoak izan ziren; alde batetik, Orduñatik Bermeora zijoan bidea, merkatariak pasatzen zutena, nahitaez Bilbotik igaro zedila ezarri zen¹⁵. Aldi berean, jaurerriaren eremu zabal bateko (Aretatik Bilbora) merkataritza-ekintzak eragotzi ziren, eta, beraz, eremu horietako merkataritza-ekintza guztiak hiribilduan bertan egin behar ziren¹⁶. Azkenik, Bilboko biztanlei Bizkaiko jaurerriko edozein lekutan merkataritza-ekintzak aurrera eramateko askatasun osoa eman izan zien¹⁷. Pribilegio horiek hiribildura oparotasun ekonomikoa ekarri zuten, bai bilbotarrentzat, bai Bermeo-Urduñako

¹³ PALACIOS MARTÍNEZ, Roberto; PRADO ANTÚÑEZ, Ana Isabel : *Bilbao. Bizkaiko herrien monografiak*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, 2015, 146.orr.

¹⁴ *Ibidem*. 30.orr

¹⁵ "MONREAL ZIA, Gregorio: *Fuentes del Derecho...*, op. cit., 53. orr.. Letra lodia nik jarritakoa. "...mando que el camino que ba de Horduna a Vermeo que pasa por Hechabarri que baya por aquesta mi villa de Viluao y no por otro lugar..."

¹⁶ *Ibidem*. 53. orr. "...que ninguno sea osado de tener conpra ni benta ni rregatería ninguna en todo el camino que ba de Areta fasta la villa de Viluao..."

¹⁷ *Ibidem* 53. Letra lodia nik jarritakoa

bidea igarotzen zuten merkatarientzat; azken finenan, Gaztelatik etorritako pertsona orok, jaurerrian merkataritza-negozioak egin nahi bazituzten, San Anton zubitik igaro behar zuten Atlantikoko kostaldera iristeko, beraz, hiribildua zeharkatu gabe ezin zela inolako negoziarik egin. Bestalde, ezin da ahaztu Diego López de Harok Bilboko hiribilduari Nerbioi itsasadarraren jurisdikzio askearen inguruan eman zion pribilegioa, eta horren ondorioz Bilbo oso azkar Kantauriko portu nagusienetarikoa batean bihurtu zen, potentzia desberdinekin (Baiona, Biarritz edo Brujas, adibidez) merkatal-itunak sinatzera iritsi zena.

Azkenik, 1300eko Hiri Gutunaren ondorioetako bat, lehen esan bezala, Bilbo lur lautik bereiztea izan zen. Hasiera batean, ez zen inolako arazorik egon behar horren inguruan, hiribilduaren jurisdikzio-mugak sorrera-dokumentuan deskribatuta baitzeuden. Hala ere, Abandoko, Deustuko eta Begoñako elizateekin mugak ezartzerakoan, hasieratik arazoak egon ziren, jurisdikzioa alde batetik eta bestetik mugak zehatzago batzuk eskatzerakoan. Sorrerako dokumentuan, Bilbori lurralde oso zabala eman zitzaion, une hartan hiribilduaren mugak ezartzen zituen zati harresitua baino gehiago. Hori, teorian, baina praktikan Gutunean adierazten ziren elizateak nortasun juridiko propioa defendatzen zuten, eta hiribilduak ez zuten inolako botererik haien gainean. Beraz, hemen ulertzen da hasiera batean Bilbo 1. figuran deskribatutako eremua zela, harresitutako esparrua, nahiz eta sortzean lurralde gehiago eman¹⁸. Arazo nagusia idazkiaren konkrezio falta izan zen; hiribilduaren terminoen deskribapena nahasiegia baitzen, eta horren arabera Bilboko hiribilduaren mugen arabera Deustuko, Begoñako eta Abandoko elizateetako zati batzuk beren udal-barrutian sartzen ziren. Teófilo Guiarden hitzetan, "termino" hitzak, bere erro latinean, horren barne dauden landa eta etxe guztiak adierazten ditu, eta horrek eragin zuen hiribilduaren mugen deskribapenaren barruan sartzen zen guztia hiribilduaren parte izatea. Hala eta guztiz ere, idazkiak Santiago elizako erreportadoreari zegokion harresiz inguratutako zatiari egiten zion erreferentzia¹⁹.

Elizateek lortu nahi zutena Bilbo ez bihurtzea salbuespen bat jurisdikzio-mugak ezartzerakoan zen. Hau da, Bilbori bere mugak elizateen barruan ezartzeko baimena ematen bazitzaion, lur lauaren barruan hiribilduek eta bere Zuzenbideak kontrolatutako zati bat egotea ahalbidetuko zen. Horregatik, Abando eta Begoñako elizateek eskatu egin zuten

¹⁸ SANTOS SALAZAR, Igor: "Apuntes sobre la organización jurisdiccional del territorio vizcaíno en los siglos XII-XIV", *Studia historica. Historia medieval*, Nº 22. zenbakia, 2004, 50. orr.

¹⁹ GUIARD LARRAURI, Teófilo: op. cit., 50-52.orr.

Bilboren jurisdikzioa bere harresietara mugatzea. Une honetan, tentsio handiko garai batean hiribildua eta elizateen arteko gatazkak sortu ziren. Alde batetik, bilbotarrek beren ustez eman zitzaizkien pribilegioak defendatzen zituzten, eta, bestetik, elizateek bere posizio juridikoa bere horretan jarraitzea nahi zuten²⁰. Muga jurisdikzionaleri buruzko arazo hori XV. mendearen amaieran konpondu zen, Errege Katolikoek, lur lauak eskatuta, hiribilduko mugak behin betiko finkatu zituztenean. Mugaketa hori Hiri Gutunak zioenaren interpretazio bat izan zen, dokumentuaren arabera batzuen eta besteen arteko muga jurisdikzionala zenari mugarriak jarri zitzaizkion soilik. Horregatik, hiribildua harresietaraino mugatu zuten, baina Abandok eta Begoñak lur gutxi batzuk galdu zituzten. Erabaki hori ez zen bat ere gustukoa izan; batetik, Bilboren hedatzeko aukerak murriztu baitzuituen; eta bestetik, elizateek ez azken muga hauek ez zituzten guztiz ondo hartu, haien zorrotzagoa nahi baitzituzten, Bilboren jurisdikzioa bere harresietara murriztuz. Hala eta guztiz ere, Bilbok jaurrean zituen pribilegioei eta nagusitasunari eutsi zizkion. Azkenik, esan beharra dago Bilboko hiribilduari ez zitzaiola erabat ukatu Deustu eta Abandoko elizateen gaineko kontrol juridikoa, oraindik ere hura izan zuelako haien gainean, baina kasu jakin batzuetara mugatzen zena, hala nola ostatura eta errotetara²¹.

Erdi Aroaren amaieran, hiribilduen eta lur lauaren arteko gatazkak gero eta ugariagoak ziren, batez ere, jurisdikzio-mugen inguruko eztabaidei dagokienez, askotan, hiribilduetako Hiri Gutunak oso nahasiak ziren muga zehazterakoan. Orduan, arazoa sortzen zen mugalde horiek elizateak hiribilduetako lurraldeen barruan sartzen zirelako. Hau, lehen azaldu dudan bezala, Bilbon eman zen, Abandoko, Begoñako eta Deustuko elizateekin. Gatazka-egoera horrek oso zaila egiten zuen jaurreriaren egonkortasun instituzionala; adibidez, tentsio horiek guztiak Jaurreriaren Erregimendu Orokorren aurrean agertu ziren, baina hiribilduek beren Erregimendua erabiltzea erabaki zuten, lehenaren izaera zalantzan jarriz, eta jaurreria lur laua deitzea zalantzan jarriz²². Honela, gatazka hauei irtenbide jarri zezaketen erakundeak sortzeko beharra zegoen²³. Egoera horren ondorioz, bi konkordia-saiakera egin ziren, bata 1603an eta bestea 1609an. Bietako batek ere ez zuen aurrera egin, baina bigarrean Batzar Orokorra izango zela jaurreriko organo komuna

²⁰ *Ibidem.* 34.orr.

²¹ PALACIOS MARTÍNEZ, Roberto; PRADO ANTÚÑEZ, Ana Isabel: op. cit., 147.orr.

²² MONREAL ZIA, Gregorio: *Instituciones públicas del Señorío...*, op. cit., 410-419. orr. Erregimenduak Foru Juntan bileren kostua arintzeko sortu ziren 1500. urtean Errege Katolikoek bitartez. Juntak bezala, mota desberdinak eman ziren, baina garrantzitsuenak lur lauarena; hiribilduena eta lur laua, hiribilduen eta hiriaren Erregimenduak izan ziren.

²³ MONREAL ZIA, Gregorio: *Fuentes del Derecho...*, op. cit., 488.orr

erabaki zen, eta gutxienez urtean behin deituko zitzaiela. Auzien arazoa jaurreria gobernatzeko ezintasunarekin gertatu zen, eta horrek erabaki bat hartu beharra ekarri zuen, 1630eko irailaren 11ko Konkordia, hain zuzen ere²⁴. Akordio honek, Bere lehenengo artikuluan, hurrengoia zion:

“Que las villas y ciudad vengan a esta unión en el estado en que se hallan en sus gobiernos particulares, **governándose como hasta aquí y con las mismas leyes; y que si alguna de dichas villas y ciudad quisiere dejar alguna ley de las que han tenido y tomar otras de las que usa el Señorío**, pidiendo al Señorío en Junta General, haga las leyes que se pidieren conformándose con las del Fuero, lo haya de hacer, y las apelaciones de sus pleitos vayan ante los señores Corregidores y Diputados generales, así del Señorío como de sus villas y ciudad; salvo que de diez mil maravedís abajo conozcan como hasta aquí los Regidores de los Ayuntamientos de las dichas villas y ciudad y de los dichos diez mil maravedís arriba, los dichos señores Corregidor y Diputados generales, de la misma forma, como de las apelaciones de las anteiglesias del dicho Señorío”²⁵.

Dokumentu horretatik, honako hau nabarmendu behar da: lehenik, testuaren arabera "Orain arte bezala gobernatuz eta lege berberekin", hots, hiribilduek bere legeria gordetzen zutela (Hiri gutunak eta Alcalako Ordenamendua) elizateekin bat egin arren; bigarrenik, hiribilduei eskubidea ematen zitzaien ordura arte beren lurraldean aplikatu beharreko Zuzenbidea alde batera uzteko eta Bizkaiko Foruari heltzeko ("Hiribildu eta hiri horietakoren batek izan dutenetako legeren bat utzi eta jaurreriak erabiltzen dituen beste batzuk hartu nahi baditu")²⁶. Dena den, garrantzitsua da adieraztea elizateek ezin zutela Foruari uko egin hiribilduek erabiltzen zuten legeria erabiltzeko, soilik kontrari gerta zitekeen. Beraz, XIX. mendearen amaieran, Apendizea lantzen ari zen momentuan, Konkordiaren ondorioz, lau hiribilduek hartu baitzuten aukera hori: Elorrio; San Pelayo, Alboniga eta Zubiaur elizateak, Bermeon sartuak; Otxano, Gordobil, Mecoleta eta Anteparaluceta baserrien jabeak; eta Villaro, Otxanoren antzeko kasua²⁷. Nolanahi ere, Konkordiaren konponbidea egon arren, arazoak zeuden oraindik ere, lehen aipatutako lau hiribilduak izan ezik, kasu batzuetan hiribilduetan bertan bi legeria aplikatzen baitziren aldi berean. Zortzi hiribildutan aplikatzen zen Erresumaren Zuzenbide komuna erabiltzen zen soilik: Durango, Ermua, Lanestosa, Lekeitio, Ondarroa, Plentzia, Portugalete eta Balmaseda, Urduña hiriaren ondoan. Gainerakoetan, lehen aipatutako dualismo juridikoaren kasua zegoen, zienei haien egoerari konponbide bat eman behar zitzaien²⁸.

²⁴ *Ibidem*. 488.orr

²⁵ *Escritos de Unión y Concordia (1630)* www.forulege.com Letra lodia nik jarritakoa

²⁶ CELAYA IBARRA, Adrián: *Vizcaya y su Fuero civil*, Iruña: Aranzadi, 1965, 89.orr.

²⁷ *Ibidem* 89-91. orr.

²⁸ *Ibidem* 92.orr

2.2. Bizkaiko foraltasunaren krisialdi garaia (XIX. mendearen amaiera)

Bizkaian barne, bi legerien arteko iskanbilak egotearekin batera, Estatu mailan, Foruen biziraupenerako arazorik handiena Espainia osoko uniformizazioaren gorakada izan zen, hau da, Espainiaren barruko lurralde guztiak arau eta baldintza berberetan arautu nahi ziren. Oinordetza gerraren (1701-1714) ondoren, borboitarrek euskal lurraldeetako Foruak errespetatzeko konpromisoa hartu zuten, haien alde borrokatu zutelako, baina lurralde horien erakunde horiek gaizki geratu ziren, eta Espainiako Monarkia Frantziako Konbentzioaren (1793-1795) aurkako gerran huts egitean foru-arazo areagotu zen²⁹. Jarraian, XIX. mendearen hasieran, Espainian liberalismoak eta idei frantziarrek zentralismoari emandako bultzada ulertzeko guztiz funtsezkoa da garai hau ulertzea. Espainiako independentzia gerra (1808-1814) bitartean, 1812ko Konstituzioan liberalek berdintasuna Estatuaren printzipio gidarietako bat zela jaso zuten, honako hau esanez: "Monarkia ospetsu hori osatzen duten probintzia guztiek nazio batua izan behar dute, eta, bertan, guztiak berdinak izango dira legearen aurrean"³⁰. Ildo horretan, Espainiako Estatuaren lehen arau gorenak Kodeen batasunaren printzipioa aldarrikatzen zuten, eta Espainiako Monarkia osorako lege bakar baten aplikazioa ezartzen zuten, baita Kode Zibil bakar baten aplikazioa, lege partikularrak baztertuz³¹. Orduan, argi dago Konstituzioak erakutsi zuela garai hartako liberalismoak berezko zuen uniformizazio juridikoaren -asmoa, eta hori 258. artikuluan idatzita geratu zen: "Kode zibil eta kriminala eta merkataritzakoa berberak izango dira Monarkia osorako, Gorteen inguruabar bereziengatik egin ditzaketen aldaketei kalterik egin gabe"³². Honek adierazi nahi zuen Estatu mailan lege bakarra ezarri nahia izan zen arren, zenbait lege bereziak ere errespetatzen eta haien erabilera posible zela. Hala ere, Independentzia gerraren amaierarekin, Fernando VII.-a itzuli egin zen, eta berarekin, absolutismoa, Konstituzioa bertan behera utziz.

Absolutismoaren bueltak ez zuen esan nahi liberalismoa betidanik desagertu zenik, eta sei urte beranduago liberalek boterea eskuratu zuten. Espainian aro honi hirurteko liberala esaten zaio (1820-1823). Euskal lurraldeetan, probintzia bakoitzeko hiri

²⁹ MONREAL ZIA, Gregorio: *Instituciones públicas del Señorío...*, op. cit., 198. orr.

MONREAL ZIA, Gregorio: *Fuentes del Derecho.*, op. cit., 165.orr.

³⁰ "Constitución política de la monarquía española. Promulgada en Cádiz a 19 de marzo de 1812"
www.congreso.es.

³¹ TOMÁS Y VALIENTE, Francisco: *Manual de historia del Derecho español*, Madrid: Tecnos, 1997. 439. orr.

³² *Ibidem*. 439. orr.

garrantzisuenetan (Bilbon, Donostian eta Gasteizen) biltzen hasi ziren, eta bertan liberalek hartu zuten garrantzi handiena³³. Beraz, une honetan burgesiaren gorakadarekin, logikoa zen beraie boterea zuten eremuak, hots, hiriak, hedatu nahi izatea. Hau da, lotura eztua zegoen garaiko testuinguru eta proposatu zuten Bilboko hedapen proiektuaren artean, Espainian liberalismoa momentu gorenean baitzegoen. Horregatik, Bilboko lehen hedatze proiektua 1821ean egin zen. Horretan, hiribilduak Abando, Deustu eta Begoñako elizateak eranstea aurreikusi zen. Elizateak erabat aurka agertu ziren, eta prozesua auzitegiataro igaro zen. Azkenik, Kontseiluak txosten baten bidez elizateak eranstea gomendatzen zuen, baina elizate horiek foru-zuzenbidea aplikatzen jarraituko zuten kontratuen, ondasunen eta tronkalitatearen inguruan³⁴.

Berriz ere, Espainia mailan, absolutismoa bueltatu egin zen hirurteko liberalaren amierarekin, eta beraz, liberalismoa Estatuko eszenatik baztertuta geratu egin zen. Hamar urte geroago, 1833an, Espainian gerra bat hasi zen Euskal probintzietan piztua: lehen guda karlista (1833-1839). Alde batetik, Foru eta tradizioen defendatzaileak agertu ziren: karlistak; eta beste aldetik, liberalak, uniformistak eta Estatu mailako zentralismoaren aldekoak. Gerra oraindik amaitu gabe zegoela, 1836an La Granjako matxinada delakoa gertatu zen, eta, horren ondorioz, liberal aurrerakoiek, 1833tik zegoen Gobernu moderatua bota zuten eta berriz ere boterea hartu zuten. Urtebete beranduago, beste Konstituzio bat aldarrikatu zuten, 1837koa. Konstituzio horrek 1812ko Cadizeko Konstituzioa erreformatu nahi izan zuen, baina Monarkiaren batasun-printzipioetatik irten gabe, zentralismoa oraindik baitzen Estatuko mugimendu liberalaren xedeetako bat. Hori berriro islatzen zen Konstituzio berrian, oraingoan 4. artikuluan, Kodeen batasunaren printzipioarekin, Foruak kanpoan uzten baitziren³⁵. 1839an, guda bukaturik, liberalismoa gailendurik eta karlismoaren porrota emanik, foruen aurkako eraso bat suposatu zuen 1839ko urria 25eko legea sortu zen, foruen existentzia ahalbidetzen eta berresten zuena, baldin eta foruak "Monarkiaren batasun konstituzionala" amoldatzen baziren. Beraz, gai horren inguruan sortu zen eztabaida guztia aipatutako 4. artikuluan oinarritu zen, Konstituzioaren eta foruen arteko bateratzea eskatzen baitzuen. Foru-erakunde batzuk bertan behera geratzen baziren ere, euskal probintziei

³³ RUBIO POBES, Coro: *Liberalismo y fuerismo en el País Vasco (1808-1876)*, Gasteiz: Fundación Sancho el Sabio, 2002. 12. orr.

³⁴ BASURTO FERRO, Nieves: "A la conquista del espacio. Documentación sobre el contencioso para la anexión a Bilbao de las anteiglesias vecinas (1821-1890)", *Bidebarrieta: Revista de humanidades y ciencias sociales de Bilbao*, 22, zenbakia, 2011. 11-14. orr.

³⁵ TOMÁS Y VALIENTE, Francisco: op. cit. 444- 445. orr.

autonomia-estatusa eta zerga-gai propioa aurreikusten zitzaizkien³⁶. Ezabatutako erakundeei dagokionez, Foruen existentzia erabat lotuta eta oinarritua zegoen lur lauko bizkaitarrek beren bizitza administratibo eta pribatua antolatu zuten autogobernu sistema propio bati, baina baita judiziala ere. Bizkaiko Foruak zenbait eremu eta instituzio berezi aitortzen zituen, eta haien artean foru-sistema judizial bat agertzen zen³⁷. Probintzia bakoitzak berea zuen, eta Bizkaiaren kasuan funtsezkoa zen, foru-sistemako hainbat elementuren ardatza baitzen³⁸. Hala ere, sistema hori desagertu egin zen 1840. urtearen aldera, Espainiako gainerako lurraldeekin berdintzen, Estatuaren sistema judizial orokorra euskal lurraldeetan inposatuz³⁹.

Konstituzioak eskatzen zuen batasuna lortzeko, hots, Foruak Konstituziora moldatuak izateko, 1839ko legeak aurreikusitako erreformak eman behar ziren. Hala ere, erreforma hori ez zen guztiz eman eta bere beharra ez zen berriz nabaritutako bigarren karlistaldia (1872-1876) iritsi arte⁴⁰. Une horretan, Cánovas del Castillok "foruen arazo administratiboa eta konstituzionalarekin" amaitzea proposatu zuen⁴¹. Estatuak zuen borondate uniformista horren adibide izan zen, Kongresuaren barruan eman ziren eztabaidak, ez soilik foruzale eta zentralisten artean. Honekin esan nahi dut uniformizazioaren aldekoak bi alderditan banatu zirela: lehenengoa, erradikalagoa, euskal probintzietako foraltasunaren erabateko likidazioa bilatzen zuena; bigarrena, moderatuagoa eta foru-arau batzuk, arlo publikoari zagozkienak, ezabatzea bilatzen zuena. 1876ko uztailaren 21ko legearekin euskal probintziak Estatu espainoleko gainerakoekin zerga eta armada esparrutan parekatu nahi zituzten,. Foruen aldeko diputatuak haien iraganeko indarregotasunean oinarritu baziren ere, Parlamentuaren gehiengoa foruen kontrari agertu zen, bere ustez euskal probintziak Espainiako baziren, lege beraren bidez arautu behar ziren.

Birtantean, Bilboko egoera ekonomiko, sozial eta politikoa aldatzen joan zen, eta Estatu mailan Foruen eztabaida ematen zen heinean, industrializazioan erabat murgilduta zegoen, eta horrek hiribilduaren hazkundera ekarri zuen. Bilbo modernizazio gune bat zen,

³⁶ GARCÍA PÉREZ, Rafael D.: "Derechos forales y codificación civil en España (1808-1880)", *Anuario de Historia del Derecho Español*, 82. zenbakia, 2012, 159.orr.

³⁷ IMAZ ZUBIAUR, Leire: "Euskal lurraldeen berezko sistema judiziala. Iraganaren eta etorkizunaren arteko zubia marrazteko erronka", *Eleria: Euskal Herriko legelariaren aldizkaria*, 20. zenbakia, 2010, 72-73. orr.

³⁸ *Ibidem.* 75. orr.

³⁹ *Ibidem.* 74. orr.

AYERBE IRIBAR, María Rosa: "La administración de justicia en los territorios vascos". *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*, 56. tomoa, 1. zenbakia, 2000. 27. orr.

⁴⁰ *Ibidem.* 74. orr.

Ibidem. 27. orr.

⁴¹ MONREAL ZIA, Gregorio: *Fuentes del Derecho.*, op. cit., 629.orr.

hiribilduaren merkataritza-emankortasunari esker indartsu bihurtzen ari zen klase sozial batekin. Horrela, industrializazioak zekarren jarduera ekonomikoak hiribilduaren fisionomia soziala aldatzen joan ziren. Pixkanaka-pixkanaka, artisauek boterea galdu zuten, eta merkatariena, berriz, hazten joan zen, "metalurgia berriak, irin-establezimenduak, ontziolak eta gainerako fabrika-instalazioak irekitzen ari ziren neurrian"⁴². Garai hartan ohikoa zen bezala, hiri baten hazkunde ekonomiko eta industrialak demografiaren gorakada zekarren. Horrek, jakina, ez zuen esan nahi bakarrik hiriaren barruan ume gehiago jaio zirenik; aitzitik, milaka migratzaile iritsi ziren Espainiako monarkiako hainbat lekutatik. Lan bila zebiltzan milaka familiak Estatuko landa-eremuetatik hiri-eremuetara mugitzeko eman zen exodoa oso nabarmena izan zen Bilbon, eta honek udal-lurraldea zabaltzeko eta handitzeko beharra eragin zuen⁴³.

Egoera hori ez zen Bilbora mugatu, eta, beraz, Espainia osoan zehar zabaltze-planak sortzen hasi ziren industria-hiri handietan. Adibide gisa, Bartzelona hiria jar daiteke, Bilbokoa baino hedapen handiagoa izan zuena. Plan hori "Cerdà plana" izan zen, "L'eixample" delakoa, hau da, katalanez zabaltze. Plan hori erradikalagoa izan zela diodanean, Bartzelonak Bilbok baino herri gehiago bereganatu zituela esan nahi dut, zehazki honako hauek: Sants, Las Corts, San Gervasio de Cassolas, Gracia, San Andrés de Palomar eta San Martín de Provensals⁴⁴. Era berean, Madrilgo adibidea jar liteke, haren zabaltze-plana "Castro planarekin" ezaguna izan baitzen lehen azaldu diren arrazoi berberengatik, Isabel II.a erreginak baimena eman zuen 1857an, eta 1860an amaitu zen 1871n gauzatuko zen proiektua.⁴⁵ Bartzelonako kasuan bezala, Madrilgo anexioek ez zuten arazo juridikorik ekarri, hango lurralde guztietan aplikatu beharreko Zuzenbide estatuarena baitzen.

Halaber, zabalgunek plan bat egin zen Donostiarentzat, bi arrazoi nagusiengatik. Lehenengoaren oinarria hiria Espainiako iparraldeko kostaldeko portu seguru bat zela izan zen. Era berean, kontuan hartu behar da Gipuzkoako probintziako hiriburua izatera igaro zela 1854an, eta horrek hiribildua handitzeko ideia ere bultzatu zuen. Bigarrenik, Donostian, Bilbon ere gertatzen zen bezala, industrializazioaren garaian hirietara bizimodu hobe baterako ihesbide gisa bilatzen zituzten landetako biztanleen helmuga bihurtu zen. Arrazoi

⁴² MONTERO GARCÍA, Manuel: *En el nombre de Bilbao*, Madril: Silex, 2017. 302. orr.

⁴³ PALACIOS MARTÍNEZ, Roberto; PRADO ANTÚÑEZ, Ana Isabel: op. cit., 848.orr.

⁴⁴ SOBREQUÈS Y CALICÓ, Jaume: *Historia de Barcelona*, Bartzelona: Rosa Vents, 2008. 253. orr.

⁴⁵ *150 aniversario del Anteproyecto de Ensanche de Madrid de Ensanche de Madrid aprobado el 19 de julio de 1860*, Madril: Madrilgo hirigintza eta etxebizitza Arloa, 2010.

horiek zirela eta, 1862an, zabalgunen planarekin hasteko aukera eman zien Agindua jaso bezain laster, herriko alde zaharra inguratzen zuten harresiak eraisteko prestatu ziren⁴⁶. Lehen zabalgunen horrek, Bilbon gertatu ez zen bezala, ez zuen auzirik sortu inguruko herriekin, harresi zaharretik haragoko eraikinak eraikitzen mugatu baitzen, hau da, hiria hedatu egin zen beste herririk xurgatu behar izan gabe, eta horrek ez zuen inolako eztabaidarik sortu, eta aurkitu ziren arazo bakarrak sozialak eta geografikoak izan ziren⁴⁷.

Komentatzen den garai horretan, 1860 hamarkadaren inguruan, Bilbok, 15.747 biztanle zituen, 30 hektarea inguruko azalera batean pilatuak⁴⁸. Honek Bilboren lur-esparru eztoa geratzea eragiten zuen, hiribilduak momentuan bizitzen ari zen eta bizi ahal zuen biztanleriaren gorakadari begira. Egoera berria ez zenez, Bilboko Udala hiribildurako zabaltze proiektu bat prestatzen hasi zen. Era labur batean esateko, 1846an, Errege Kontseilu batean berretsi zen udaletxeak prestatutako txostena, eta, beraz, Gorteei aurkeztuko zitzaien lege-proiektu bat sortzea lehenetsi zen. Azkenean, 1861eko apirilaren 7ko Legea Bilbori Abandoko zati bat eransteko sortu zen. Hau da, laburki, prozesu administratibo osoa nola bideratu zen.

1. TAULA: “BILBOKO BIZTANLE KOPURUA”

URTEAK	BILBO	BEGOÑA	ABANDO	GUZTIRA
1797	10.943	1.577	2.179	14.699
1810	9.975	1.943	2.736	14.654
1825	12.159			
1826	11.900	1.570	2.880	16.350
1860	17.969	4.535	5.079	27.583
1869	18.417			

2. TAULA: “1870: Abando eta Begoñaren anexo partzialak”

1877	32.734	1.867	2.639	37.240
1887	57.481	2.662	4.047	64.190

3. TAULA: “1890: Abandoren anexo osoa”

1897	74.093	5.343		79.436
1900	83.306	5.802		89.108

ORTEGA BERRUGUETE, Arturo Rafael: “La población de Bilbao” 1800-1870”, *Vasconia: Cuadernos de historia - geografía*, 10. zenbakia 1988.


⁴⁶ MARTÍN RAMOS, Ángel: “El ensanche de San Sebastián, Antonio Cortazar y las referencias influyentes”, *Ciudad y territorio: Estudios territoriales*, 119-120. zenbakiak, 1999, 293-295. orr.

⁴⁷ BARRUSO BARÉS, Pedro; BÓMEZ PIÑEIRO, Francisco Javier; SAEZ GARCÍA, Juan Antonio: *Geografía e Historia de Donostia- S. Sebastián*. Donostia: Euskal Geografía Elkargoa, 2013, 134. orr.

⁴⁸ *Ibidem*. 134. orr.


2. FIGURA:

Bilboko udal-mugartearen planooa, 1861eko apirilaren 7ko legearen arabera



ARREGUI CIVANTOS, Andere: “El crecimiento colateral la presión urbana de Bilbao sobre la anteiglesia de Abando. Un estudio de su población y su territorio en el siglo XIX”, Bilbo: UPV/EHU, 2020. 313-329. orr.

3. FIGURA: Bilboko hiri-barrutiak, 1893an.



GANGOITI BEASCOECHEA, José María: “Jerarquización social del espacio urbano en el Bilbao de la industrialización”, *Scripta Nova: Revista electrónica de geografía y ciencias sociales*, 7. extra zenbakia, 2003

TAULA 4: Bilboko anexioen denbora-taula.

DATAK	<u>1870</u>	<u>1890</u>	<u>1924-1925</u>	<u>1940</u>
ELIZATEAK	Abando eta Begoña partzialki	Abando osoki	Deustu osoki Begoña osoki Erandio partzialki	Erandio osoki

Taula nik egin dut artikulu honetan agertzen den informazioa jarraituz: ALONSO OLEA, Eduardo. J.: “Y después qué... Efectos de las anexiones de Abando, Deusto y Begoña a Bilbao. 1870-1936”. *Bidebarrieta: Revista de humanidades y ciencias sociales de Bilbao*, 22. zenbakia, 2011.

Ikusi denez, XIX. mendearen erdialdean, Bizkaian, hiribilduen eta elizateen arteko gatazkak areagotu egin ziren, probintzia osoan zehar horrelako anexioak eman baitziren. Hala ere, dualismo juridikoak lan honen xedean eragin zituen ondorioak hobeto ulertu ahal izateko, lehenik eta behin une horretako foru-egoera zein zen adierazi behar dut, baita Bizkaiko Foruari eman zitzaion tratamendua ere, batez ere lehenengo karlistaldiaren amaieratik eta bigarrenaren ondoren. Foruek aldaketa ugari jasan zituzten etapa horretan. Garai hartako asaldurak euskal foraltasunaren iraupena zaildu egin zuen, eta, beraz, Bizkaikoarena. Lehen gerra karlistaren ondoren, 1839an, Bergarako Konbenioa formalizatu ostean, urte horretako urriaren 25eko legeak, euskal probintzietako eta Nafarroako Foruak konfirmatzen zituen, baina "monarkiaren batasun konstituzionala"rekin bateragarriak bihurtu behar ziren ⁴⁹.

Aurrekoaren harira, 1876an, alderdi kontserbadorearen buru Cánovas del Castilloren gobernuak urte horretako uztailaren 21eko Legea aldarrikatu zuen. Arau horren aitzindaria, nolabait esateko, aipatutako Bergarako Ituna da eta 1839ko legea dira, zeinaren arabera liberalek foruak indarrean jarraitzea erabaki zuten, baina hura erreformatzeko betebeharrarekin. Kontuan hartu behar da 1876an bigarren gerra karlista amaitu berri zela, euskal probintzietan eta Nafarroan gertatu zena, eta hori oso garrantzitsua izan zen lege berri baten idazketa erabakitzeko orduan "1839ko gerra amaitzean izandako zabarkeriak edo konplazentziak errepikatu gabe"⁵⁰. Azkenean, uztailaren 21eko Legeak, besteak beste, foru-erakunde publiko guztien ezabatzea ekarri zuen. Gainera, euskal probintzietako biztanleak eta gainerako espainiarrak berdindu zituen, eta, beraz, ezabatu ziren Espainiako Estatuak probintzia horietako biztanleei orain arte aitortu eta mantendu zizkien pribilegio guztiak, hala nola, fiskalitatean. Nolanahi ere, zehaztu beharra dago neurri horrek Gipuzkoari eta Arabari eragin ziela batez ere, bi probintzia horietan beren Zuzenbide pribatua ez

⁴⁹ *Ley de 25 de octubre de 1839, de confirmación y modificación de los Fueros de las Provincias Vascongadas y de Navarra*. www.lexnavarra.navarra.es

⁵⁰ MONREAL ZIA, Gregorio: “La Ley abolitoria de Fueros...”, op. cit., 84. orr.

baitzegon bildumetan jasota, eta, horregatik, foraltasun publikoaren desagerekin beren pribilegioen zati handi bat galdu zuten. Bizkaiaren kasuan, lege hori antzina jaurrean indarrean zeuden tradizioen ezabatzaile gisa ikusi zen, baina Cánovasentzat 1839ko Legeak aipatzen zuen "konstituzio-batasuna" aplikatzea baino ez zela, eta "administrazio-arloan" Espainiako Estatuko lurralde osoan berdintzera mugatzen zela⁵¹.

Hala eta guztiz ere, adierazi behar da lege horrek ez zuela zuzenean Forua kaltetu haren eremu pribatua. Gregorio Monrealen hitzetan, "Bizkaiko Zuzenbideak bizirik irauteko behar besteko sendotasuna zuen, bere foru-sistemako organoak desagertu arren"⁵². Beraz, Bizkaiko lur lauan foru-zuzenbidea zen oraindik bertako biztanleak arautzeko iturria. Honela, Espainiako Zuzenbide zibilari zegokionez, kodifikazio-garaian, legegileek Estatuan aplikatu behar zen kodearen idazketari ekion zioten. Espainian, testu proiektuekin hasita zeuden Europako gainerako estatuetan ez bezala, Kode Zibila sortu zen azkena izan zen, 1889an zehazki. Testu honen idazkerak bere prozesu neketsua oso ezaguna bada ere, zenbaitetan landu egin da gai hori, eta, beraz, 1876ko uztailleko Lege indargabetzailea promulgatu ondoren emandako gertaeretan jarri nahi nuke arreta.

1880an, garai hartako Justizia ministroa zen Fermín de Lasalak berriro ireki zuen kodetze prozesu orokorra, Kodegintzarako Batzorde Orokorra berriro antolatuz, eta bertan hainbat abokatu legelari sartu zituzten. Horiek memoria bat sortzeko betebeharra zuten, lurralde forudunen foru-zuzenbideko printzipio eta erakunde garrantzitsuenak jasotzeko⁵³. Jakina, lehen aipatu dudana bezala, foru-zuzenbidearen eremu pribatua mantendu egin zen, eta, beraz, proiektuaren ardura hartu zuten legegileek honetara mugatu egin ziren. Frogatuta geratu denez, foru-arazoa nabarmena zen Espainian XIX. mendearen amaieran. Horretaz gain, Espainiako Kode Zibilaren proiektuak 1851n izandako arrakasta txikia eta haren beharra kontuan hartuta, kide foralistak Kode Zibilaren Kodegintzarako Batzordean sartzea erabaki zen⁵⁴. Horrenbestez, 1880ko otsailaren 16an, Errege Dekretu bat eman zen, zeinaren bidez Manuel Lecanda y Mendieta (geroago Bizkaiko Batzorde Kodifikatzaile Bereziko presidente izango zena) Bizkaiarako bokal-lanetan sartzen zen.

⁵¹ CASTELLS ARTECHE, Lluís: "La abolición de los Fueros vascos", *Ayer*, 52. zenbakia, 2003, 138. orr.

⁵² MONREAL ZIA, Gregorio: "La Ley abolitoria de Fueros...", op. cit., 92. orr.

⁵³ CELAYA IBARRA, Adrián: op. cit. 31. Orr.

⁵⁴ MONREAL ZIA, Gregorio: "Codificación civil y legislación foral en Vizcaya." *Anuario de historia del derecho español*, 83. zenbakia, 2013. 199. orr.

Urtebete geroago, Lecandak Bizkaiko foru Zuzenbideari buruzko memoria bat aurkeztu zuen. Legelari horren arabera, gainerako euskal probintzietan ez zegoen zuzenbide zibil propiorik⁵⁵. Manuel Lecandak, "Gobernuaren asmoetara egokitzen" saiatu zen Bizkaiko Foruari buruzko prestatu behar zuen testua, hau da, Estatua guztiz kontuan harturik formulatu zuen bere lana⁵⁶. Lecandak ideia bat zuen abiapuntu gisa: foru Zuzenbidearen printzipio eta erakundeak kontserbatzen lagundu nahi zuen. Honela, funtsean, ahaleginak egingo zituen foru-zuzenbide pribatua eta haren tituluak etorkizuneko Kode Zibilak eskainiko lituzkeen behar eta aukeretara egokitzeko. Hori dela eta, Lecandak bere lan guztia antolatu zuen uneko jarrera uniformista kontuan hartuta, eta, horregatik, hobe iruditu zitzaion foru-legeria komunera egokitzea.

Lecandaren memoriari buruzko eztabaidan, Kodegintza Zibilerako Batzordeko presidente Alonso Martínezek foru legeria eta legeri komunaren arteko lotura-puntuak aurkitu zituen. Horrela, Batzordeak eta Alonso Martínezek bi araudien arteko desadostasunak antzeman zituzten oinordetzen arloan; bestalde, erabat beharrezkotzat jo zuten foru-testu bat eta haren legeria pribatua sortzea, dudarik gabe interpretatzeko modu argiago batean irakurtzeko. Batzordeak Kode Zibilarekin bateragarri gisa onartu zuen gaiari dagokionez, oso labur geratu zen, eta hiru erakundetan laburbildu zen: tronkalekotasuna, senipartearen gaineko testamentu-askatasuna eta ezkontideen arteko ondasunen foru-komunikazioa⁵⁷. Honen ostean, kontuan hartu behar da maiatzaren 22ko 1888ko Oinarri Legea, eskualdeetako legeriak jasoko zituzten Apendizearen idazketak agintzen zuena. Era berean, Kode Zibilak, zeina urtebete geroago onetsi baitzen, Apendizeen beharra jasotzen zuen 12. artikuluan. Hain zuzen ere, Oinarrien Legeak kodetze-prozesu bat behar zuen, eta, horren bidez, Bizkaiko Zuzenbideari indarregotasun-lurraldetarraren buruzko txosten bat eskatu zitzaion probintziako Zuzendaritzari eta Abokatuen Elkargoari, eta txosten hori prestatzen hasi ziren horren beharraren berri izan bezain laster. Honela, gobernu zentralak parte-hartze txikia izan zuenez, prozesu konpilatzailea Bizkaian mantendu egin zen⁵⁸.

1889ko apirilaren 24ko Errege Dekretuaren bidez, Bizkaiko Kodegintzarako Batzorde Berezia eratu zen. Batzorde hori sei kideek osatu zuten: hiru kide, probintziako Diputazioak hautatuak: Galarza, Bolívar eta Veriztain; bat Abokatuen Elkargotik: Carlos de la Plaza; beste

⁵⁵ *Ibidem*, 201. orr.

⁵⁶ *Ibidem*. 201. orr.

⁵⁷ *Idibdem*. 203. orr.

⁵⁸ MONREAL ZIA, Gregorio: *Fuentes del Derecho*., op. cit., 642. orr.

bat Burgoseko Notarioen Elkargotik: Francisco Quintana; eta presidente gisa Manuel Lecanda, Kodegintzarako Batzorde Nagusiko kidea⁵⁹. Honekin batera, Batzorde honi Aldundiak izendatutako hiru arabar gehitu zitzaizkion, eta, beraz, Batzordea Bizkairako eta Arabarako bihurtu zen. Batzorde horrek hogeita bat bilera egin zituen, eta horietatik lan bat idatzi zen. Hori, Bizkaiko eta Arabako Kode Zibilaren Apendizearen lehen proiektua izan zen, baina ez zen argitaratu arau lez. Proiektu honetatik nabarmendu behar da Carlos de la Plazak Batzordearen barruan egindako lana eta emandako ideei guztiak, bere parte hartzea garrantzi handikoa izan baitzen, gero azalduko dudan bezala . Seguruenik, aurkeztu dudan lanaren xedeari dagokionez, de la Plazaren proposamena da azpimarragarriena, udalerrri batzuetan dualismo juridikoaren arazoa konpontzeko hiru jarduera-arau hartzen baitzuten.

Hala eta guztiz ere, Apendizearen proiektua ez zen inora iritsi, Oinarri Legeak eskatzen zuen Abokatuen Elkargoaren txostena hogeita zortzi urte atzeratu zelako. Gregorio de Balpardak ez zuen begi onez ikusi proiektuaren forma, ez eta foru-erakunde batzuei ematen zitzaizkien tratamendu batzuk ere, hala nola testamentuzko oinordetzan zilegi zena. Horrela, De Balpardak eta Abokatuen Elkargoan jarraitzaile gutxi batzuek txostena blokeatu zuten . Desblokeoa ez zen Primo de Riveraren diktadura arte iritsiko. Orduan, Aragoiko Apendizea aldarrikatzean, Bizkaiko Diputazioak probintziako Batzordeak ordezkatu zuen, eta Abokatuen Elkargoari beste proiektu bat idazteko eskatu zion. Proiektu hori 1900. urtean egin zen bera izan zen.

Sarrerarekin amaitzeko eta lana berari bide emateko, nire lanaren arrazoari idealtasun handiagoa emango dioten hurrengoan adierazi nahiko nuke. Bilakaera historiko honetan azaldu dudan bezala, Bizkaiko egoera juridikoa ez zen erraza. Ikus daitekeenez, espazio hain txiki batean irauten duten bi lege-gorputz aldi berean egoteak, besteak beste, zuzenbide mugen arazoak edo kasu bakoitzean aplikatu beharreko legeria argitzeko konplexutasuna ekar ditzake. Arazo horiek guztiak Bizkaia osoan sortu ziren, eta, egiaztatu denez, Bilbo ez zen salbuespen bat izan. 1300. urtean hiribildua sortu zenetik jurisdikzio-arazoak egon ziren, eta lan honetan erakutsiko dudan moduan, arazo hauek areagotu egin ziren bost mende geroago elizateen anexioekin. Dena den, kasu honen efektua ez da jada ikusitakoa, hau da, kasu horren pean Bilbok izan zuen historia, baizik eta dualismoaren arazoari eman zitzaion tratamendua.

⁵⁹ CELAYA IBARRA, Adrián: op. cit., 29.orr.

III. BITASUN JURIDIKOA BILBOKO HIRIBILDUAN (1860-1959)

XIX. mendean dualismo juridikoa Bizkaia osoan zabaltzen ari zen fenomeno zela frogatu den arren, jarraian Bilboko hiribilduaren egoera espezifikoki heldu behar zaio. Honela, erakutsi nahi dena zera da, errealitateak ekarri zuen Bilbon hiribilduak zuen zuzenbidea erantsi zituen elizate ohietarataraz igarotzea. Egoera hori, Bilbon ez ezik, Bizkaiko hainbat hiribildutan ere eman zen, baina kasu hori interesatzen zait, garai hartako egileek, epaileek eta legegileek hainbeste tratatu zutelako. Lanaren sarreran esan bezala, autore horien lana funtsezkoa da Bilbon arazo horrek eragiten zuena ikuspegi hurbilago batetik ulertu ahal izateko. Zenbait arazo hartzen zuten kontuan gaian adituak zirenek. Praktikoak zirela kontuan izan behar da, hau da, kargu politikoak izan zituztela, eta judizialak ere, Carlos de la Plazarekin gertatzen den bezala, alkateordea eta abokatutza izan zuena ogibide gisa. Gainera, aztertuko den doktrina guztiak ikuspuntu bizkaitarra izango du, hau da, egileak Bizkaian egin zuten bere bizitza eta, probintziaren barneko arazo juridikoak pertsonalki erasan zituzten. Beraz, Forua eta barneko bitasun juridikoari buruzko Bizkaitik kanpoko doktrina lanak ez dira hemen agertuko, adierazi dudana bezala, hemengo egoera juridikoa ez baitzen Estatuko beste alorretan hainbeste jorratutako gaia izan.

Epaileen lana ere kontuan hartu behar da; izan ere, denbora horretan, legeri bat edo bestea aplikatzeari buruzko jurisdikzio-arazoak konpontzeaz arduratu ziren, harik eta 1959ko Konpilazioan azken konponbide legala ezarri zen arte. Epai bakar batean zentratuko naiz, oso mamitsua baita eta gaiari buruz eman ziren garrantzitsuenetariko bat delako: Auzitegi Gorenaren 1927ko ekainaren 6ko epaia. Kontuan hartu behar da Francisco Javier de Acillona eta Landesek "Erróneas interpretaciones dadas la jurisprudencia vizcaína del Tribunal Supremo" artikuluan egindako epai horren azterketa, "Bizkaiko Foruaren lurraldetasun erradikalenaren defendatzailetzat" jotzen baitzuen⁶⁰. Hala ere, epaiari buruz egiten den interpretazio okerra aditzera eman zuen, egile gehienek uste baitzuten Foruaren lurralde-indarra berrestea zuela helburutzat. Acillonak, bestalde, Auzitegiak adierazten zuela garrantzitsuena irizpide pertsonala zela zion, hau da, kausatzaileak Bizkaiko auzotasuna lortu zuen ala ez. Ildo horretatik, Auzitegiak Kode Zibilaren 15.3 artikulua arabera auzotasuna lortu izanagatik erabaki zuen eskubide hori zuela (Kode Zibileko 15.3. art.: "Probintzietatik

⁶⁰ DE ACILLONA Y LANDESA, Francisco Javier: *Erróneas interpretaciones dadas la jurisprudencia vizcaína del Tribunal Supremo*. Anuario de Derecho civil, ZENBAKIA, 1959. 245. orr.

edo foru-lurraldeetatik etorriak izanik, Zuzenbide komunaren menpeko beste batzuen auzotasuna irabazi dutenei⁶¹). Beraz, haren arabera, ez zen bakarrik baserria Infanzonatuan egoteagatik demandatuak Foruari eutsi ziola, baizik eta berak ere lortu zuelako foru-zuzenbidea erabiltzeko aukera ematen zion auzotasuna. Kode Zibilarekin eta haren lehenengo idazketarekin bat etorriz, garrantzitsua da, halaber, 10. artikulua eta Foruaren XX. tituluaren 15. legearen artean dagoen lotura adieraztea: “Bizkaitarrek, hiribilduetan bizi badira ere, Bizkaiko Foruaren XX. Tituluko 15. aren arabera eutsiko diote lurralde forudunean duten ondasun higieziinei dagokionez⁶²”. Funtsean, Auzitegiak aurreko artikulua eta 15. artikulua erabili zituen, demandatuek Forua baserriari zegokionez erabil zezaketela argudiatu ahal izateko. Beraz, orain dagokit, bai doktrinak zein jurisprudentziak anexioek eragindako bitasunaren inguruan esandakoa argitzea.

3.1 Doktrina

- Carlos de la Plaza (1859-1918)

Carlos de la Plaza y Salazar Bizkaiko XIX. mendeko amaieraren foru-literaturaren aditu garrantzitsuenetako bat izan zen. Errioxan jaioa, Bilbora joan zen Zaragozako Unibertsitateko Zuzenbide ikasketak amaitu ondoren⁶³. Bizkaiko Foru Zuzenbidearen Apendizearen proiektuaren lehenen proposameneko kidea izan zen, eta mekanika bat sortu zuen udalerrri bereko eremu batean edo bestean aplikatu beharreko legeria erabakitzeko orduan anexioek suposatu zezaketen arazoak konpontzeko. Honela, beharrezkotzat jotzen dut aldeztatik argitzea zein iritzi zuen Carlos de la Plazak lan osoan jorratuko dudana dualismo juridiko zibilar buruz. Horretarako, bere hitzei erreparatu behar diegu, zehazkiago bere *Territorios sometidos al Fuero de Vizcaya en lo Civil* lehen liburukian aurkitzen direnei, non egileak esan zuen: "Nahiago genukeela [bera Bizkaiko Kodifikazio Batzorde Berezi kide bezala hitz adierazten ari zen] lege bakar bat Bizkaia osoarentzat, baina zoritxarrez ez da erraza hori lortzea, eta, beraz, konformatzen gara batasun juridikozional hori gutxienez Udalerrietan ematearekin⁶⁴. Hitz horien bidez uler daiteke de la Plaza erabat kontziente zela Bizkaiko probintziaren berezko dualismo juridikoak arazo juridikozionalek eta bere mugen

⁶¹ “1889ko uztailearen 24ko Errege Dekretua, Kode Zibila argitaratzen duena., La Gaceta de Madrid. 1889.

⁶² *Ibidem*.

⁶³ Plaza Carlos, Salazar www.aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus.

⁶⁴ DE LA PLAZA SALAZAR, Carlos: *Territorios sometidos al Fuero de Vizcaya en lo civil*, Bilbo: Zuzenbidearen Euskal Akademia, 2015, 247.orr.

zehaztapenak zekarren arazoetaz. Beraz, berak, legeriaren batasuna ezin zela probintzian eman jakinik, batasun hori udalerrien barruan lortzeko borondatea adierazi zuen, non, aurrerago ikusiko den bezala, nahastea are nabarmenagoa izan zitekeen.

Carlos de la Plazaren ikuspuntutik, arazoa jurisdikzioen arteko mugak argitzeko beharretik harago zihoan. Beres ustez, konponbidea hiribildu bat elizate bat edo gehiago anexionatzen zuenean, udalerrri oso bati aplikatu zekiokkeen legeria bateratzean zentratu behar zen. Hau da, Bilboko Abando eta Begoñako elizateen anexionen kasuan, arazoa ez zegoen soilik hiribilduaren eta elizatearen arteko muga jurisdikzionalaren zehazpena izango, baizik eta lege bakarra ezartzea. Udalerrien barruan dualismo juridikoa arazo gisa hartzen zen, eta etorkizunari begira konponbide baten beharra argia zen. Horrela, elizateek beren arteko mugak eztabaidatzen zituzten; batetik, jurisdikzioa noraino iristen zen; eta, bestetik, non amaitzen zen zehaztearekin ez zen arazoa desagertzen. Kasu hauetan, arazoak zutik jarraituko zuen, eta legeria aplikatzeko orduan gaindiezina izango zen Zuzenbidearen aplikazio eraginkor bat ematea.

Aplikatu beharreko legiazioa argitzeko premia hori Bizkaiko Kodegintzarako Batzorde Berezia ere jorratu zen. Honi dagokionez, batzordekideek Carlos de la Plazaren hitzak eta berak egoeraren inguruan egin zuen lana kontuan hartu zituzten. Horrela, 1899ko urriaren 17ko aktetan jasotzen da behar hori: "Behin Bizkaiko forua non aplikatu behar den finkatzea oso garrantzitsua zen, eta, agian, ebatzi beharreko hainbat gairen artean garrantzi handiagorik ez legoke"⁶⁵. Horrekin batera, kontuan hartuta Bizkaiko hainbat udalerritan ematen zen egoera, Carlos de la Plazak plan bat aurkeztu zion Batzordeari, hiru arauetara osatua, udalerrri bakoitzean legeak bateratu ahal izateko. Arau horiek bat zetozen hiribildu bakoitzean gertatzen ziren bitasun juridikoen egoerekin.

Hiru kasuak honako hauek izan ziren:

- a) Anexio partziala, Abando eta Begoñaren kasua, 1870ean
- b) Erabateko eransketa, udalerrri baten desagertzeagatik, Abando 1890ean egin zen bezala
- c) Eta bizitza propioa zuten bi herriren fusioa, Gernika-Lumoren kasua⁶⁶.

⁶⁵ *Actas de las sesiones celebradas por la Comisión Especial de Codificación de Vizcaya*. Bilbo: Zuzenbidearen Euskal Akademia, 2004, 84. orr.

⁶⁶ DE LA PLAZA SALAZAR, Carlos: op. cit. 247.orr.

Zein legeria “etsi” behar zen zehazteko arauak honako hauek ziren:

Lehenengo kasuan, elizatea partzialki hartzen zen kasurako, banandutako zatiak berezko lege zibila galduko zukeen, hau da, elizateak Bizkaiko Forua galduko zuen, hiribilduaren lege komuna hartuz. Bigarren kasuan, gauza bera gertatuko zen, Carlos de la Plazak uste baitzuen logikoa zela desagertutako lurraldeak aplikatu beharreko legea ere galtzea. Hirugarren kasuan, legeria aplikatzeko interesa zuten bi herriek horietako zein erabili beharko litzatekeen udal-mugarrean itundu beharko zuten. Ados jartzen ez baziren, Bizkaiko Forua izango zen aplikatu beharreko legeria. Bi arrazoi zeuden horretarako: batetik, Bizkaiko lurraldearen zati handi batean lege orokorra zelako; eta, bestetik, 1630eko Konkordia kontuan hartuta, hiribilduek har zezaketelako elizateen legeria, eta ez alderantziz. Testu horietatik antzematen da Carlos de la Plazak dualismo juridikoa premiaz konpondu beharreko gai gisa ikusten zuela, etorkizunean Bizkaiko probintziaren Zuzenbidearentzat oztoporik ez bihurtzearen premiarekin. Hala ere, de la Plaza bere iritzia eman zuen, baina kasu gatatzatsuetan sakonduz joan zen ere bai, eta, jakina, baita aztergai dugun kasuan ere.

Carlos de la Plazak Bizkaiko Forua Abando eta Begoñako elizateetan desagertu egin zela zion, Bilbok atxiki zituenean, baina hori ulertzeko, kontuan hartu behar da Zabalguneari buruzko Legearen 4. artikulua. Honela esaten zuen artikuluko horrek: "Zabaltzearen ondorioz Bilbori ematen zaion egungo jurisdikzioko lurra lagatzea komeni ez bada elizateetakoren batekin, bere lurralde osoa hartuko du, eta bere eskubide eta betebeharrak guztiak izango ditu aipatutako hiribilduaren alde; kasu horretan, orain arte bezala, Foruaren legeak arautuko dute, kontratuei, ondasunen eta jaraunspenen tronkalitateari eta gainerako eskubide zibilei dagokienez"⁶⁷. Testu horren arabera, de la Plazak legea argia zela zion, elizateetako edozeinek foru-legedia izango zuela berezko legedi gisa esaten baitzuen, baldin eta elizate osoa hiribildu osora batzen bazen⁶⁸. Garrantzitsua da azalpen hori, Abando eta Begoñari bi fase deberdinetan erantsiak izan baitziren; 1870ean, elizate horietako lur-zati batzuk Bilboren esku geratu ziren; eta, ondoren, 1890, Abando bere osotasunean lotu zen. Ildo horretatik, 1861eko apirilaren 7ko lege-proiektuaren Batzordeak bere iritzia ere eman zuen, eta kontuan hartu zuen elizateak hiribildura anexoaraztearen behartzeko aukera. Kasu honetan, elizateek beren legeei eutsi behar zieten, hau da, Bizkaiko Foruari. Orain arte bezala, bi kasutan,

⁶⁷ 1861eko apirilaren 7ko Legea “Ley de Ensanche” 4. artikulua. Gaceta de Madrid. 1861.

⁶⁸ DE LA PLAZA SALAZAR, Carlos: op. cit. 182. orr.

Bilboko hiribilduaren zati izan arren, Abando eta Begoñak indarrean zuten legeriari eutsi ahal izango zioten, edo osorik erantsi edo horretara behartuak ikusi bazuten euren buruak.

Beraz, zer gertatu zen lurralde anexionatuekin? Beren legeriari eutsi zioten edo Bilboko legeriari heldu zioten? Frogatuta geratu denez, 1861eko legearen testua nahiko argia zen, eta elizatea hiribildura anexionatzera behartuko balitz edo erabat batuko balitz, Bizkaiko Forua indarreko legedi gisa mantentzeko⁶⁹. Abandoko egoeran, lehen esan dudana bezala, eranskin hori bi momentu ezberdinetan eman zen, bata 1870ean eta bestea 1890ean. 1870ean erantsitako lurraldeari Zabalguneko Legearen 4. artikulua aplikatu zitzaion; beraz, Abandoko zati horrek Foruaren aplikazioa galdu zuen, eta hiribilduaren legeri komuna erabiltzen hasi zen. Carlos de la Plazaren ustetan, eranste partzial hori elizateek bere osotasunean lotzearen abantaila ez zekitelako egin zen ziurrenik⁷⁰. Dena den, Abandoko elizateak ez zuen erabat galdu bere nortasuna, Bilborekin batu ez zen lurraldeak bere izaerari eutsi ziolako, eta hori Bizkaiko Foruak oraindik indarrean jarraitzen zuen. Hogei urte pasa izan ziren elizatearen parte hori Bilboren barruan erortzeko, baina kasu horretan, lurralde hori ez zuen galdu foru-zuzenbide pribatuaren aplikazioa legeria nagusi gisa.

Carlos de la Plazaren lana ulertzeko, aldi berean, idazki horiek argitaratzeko oinarria teorikotik haratago doala ulertu behar da, hau da, bere lanak irakurri eta aztertzea, eta landu beharreko gaia ezagutzeaz ezker, De la Plazak ere praktikotasunean horrelako arazoak kontuan hartu zituen, bai Bilbon, baita sintoma berak zituen beste edozein udalerritan ere. Honela, berak gogorarazten zuen bezala, elizateen anexoak gertatu ziren garaian, bera Bilboko alkateordea zen. Hori zela eta, esan daiteke arazoa gertutik ezagutzen zuela egoera. Orduan, 1888an epaiketara eramandako kasua gertatu zen, non kausatzailearen senide tronkerok kausatzaileak egindako testamentua baliogabetzea eskatu zuten, emaztea onibarretan jaraunle gisa jarri baitzuten, ezkontzak ez zuelako seme-alabarik eman. Eskaera horren oinarria ondasunak Begoñako elizatean zeudela Bilboko hiribilduaren zati bati erantsi baino lehen zen, eta, beraz, Bizkaiko Forua aplikatu beharreko legeria zela, eta horrek tronkalekotasuna errespetatzea eta aplikatzea zekarrela. Epaiketa horretan, Carlos de la Plaza kontrako alderdiaren abokatu gisa parte hartu zuen eta antzeman daiteke hark gertutik jarraitu zuela. Justiziak testamentua ezin zela deuseztatu erabaki zuen, hots, tronkaleko senideei

⁶⁹ FAIRÉN GUILLÉN, Victor: *El fuero de Vizcaya en lo civil durante los siglos XVIII y XIX*, Madril: Reus, 1946. 29. orr.

⁷⁰ DE LA PLAZA SALAZAR, Carlos: op. cit. 181.orr.

arrazoia eman ere, tronkalitatea Bizkaiko foru Zuzenbidearen berezko erakunde bat zen, eta Abandoko elizatean aplikatzeari utzi zion 1870eko apirilaren 2tik aurrera, une horretan Bilbora partzialki atxiki baitzitzaion. Beraz, lehen azaldu dudan bezala, guztiz erantsi ez zenez, erantsitako zatiak bere zuzenbide pribatua galdu zuen eta hiribilduarena aplikatu behar zen⁷¹. Lehen auzialdiko epailearen erabakia apelatu arren, orduko Lurralde Auzitegiak epaitegiaren erabakia berretsi egin zuen, eta honako hau gehitu zuen: "Foruaren legeek, ondasunen eta jaraunspenen tronkalitateari buruzkoek, ez dute hiribilduen lurraldean aplikatzen, baizik eta Lur Lauan eta Enkarterrietan soilik"⁷². Azken batean, Carlos de la Plazaren lana oso garrantzitsua izan zen giro juridiko horretan garai hartako partaideen ikuspena aztertzerakoan. Halaber, Bizkaiko Kodegintzarako Batzorde Berezian (gero Bizkaikoa eta Arabakoa) egindako lanek berebiziko garrantzia izan zuten, aktak irakurriz egiazta daitekeenez.

Era berean, 13. bilkuraren aktetan ikus daiteke Carlos de la Plazaren lanak 1900eko Apendizearen proiektuko artikuluen erabakian eragin handia izan zuela. Bilera horretan, udalerrien barruko dualismoaren gaia aztertu eta eztabaidatu zen. Bertan jasotzen denez, de la Plaza izan zen bere lana proposatu zuena arazo horri irtenbidea emateko⁷³. Izan ere, proiektuaren zati horren oinarria bere *Territorios sometidos al Fuero de Vizcaya en lo civil* zen. Lan honetan Carlos de la Plazak mahaiaren gainean jarritako planteamenduak argitzeko liburu hori erabili dut . 1899ko urriaren 17an egindako bilerako akta horietatik honako hau atera daiteke: udalerrri bakar batean legedi bakarra esleitu ahal izateko arauen sistema, Bizkaiko udalerrri guztiak (elizateak eta hiribilduak) zerrenda batean batu zituzten, bertan zer legedi aplikatzen den adieraziz (forala, komuna edo biak); eta, azkenik, testu artikulatua idazten, eta horren arabera, "Bermeori lez, aplikatu behar zaio Bilbori ere Erresumaren lege orokorra bere jurisdikzio osoan, 1. eta 2. erregelekin bat"⁷⁴. Saio hori 1899an egin zela kontuan hartuta, ondorioztatzen da ezen, 1890ean erantsitako Abando aldean foru legea aplikatzen ari bazen ere, eranskina indarrean sartzen zen unetik aurrera herri osoa lege komunaren mende egongo zela.

Horrela, amaitzeko, azpimarratu nahi nuke Carlos de la Plazak behin eta berriz ahaleginak egin zituela, udalerrien barruan dualismoaren arazoa konpontzen saiatzeko.

⁷¹ *Ibidem.* 188-189.orr.

⁷² *Ibidem.* 189.orr.

⁷³ *Actas de las sesiones celebradas...* op. cit., 84. orr.

⁷⁴ *Ibidem.* 101. orr.

Egoera hori berak aurreikusi eta arduratsu jorratu zuen, eta hala ikus daiteke bere lanetan eta Kodegintzarako Batzorde Berezian parte hartzean. Zoritxarrez, lanean zehar ikusiko den bezala, Apendizearen proiektuan izandako atzerapenek Carlos de la Plazaren udalerrietako legeria bateratzeko arauak ez aplikatzea eragin zuten, eta horrek eragozpenak eragin zituen, geroago azalduko ditudanak, garai hartako epaitegien jurisprudentziaren bitartez.

- **Gregorio de Balparda (1874-1936)**

Garai hartako pertsona azpimarragarrien artean, Gregorio De Balparda aurkitzen da ere, Bizkaiko egoera juridikoari buruz idatzi zuen foraltasunearen inguruko aditua izan zena. Bilbon jaioa, de Balpardak Deustuko Unibertsitatean Zuzenbidea ikasi zuen, baina Madrilen amaitu zituen ikasketa horiek. Gaztaroan erregionalismoaren aldekoa izan bazen ere, XX. mendearen hasieran iritziz aldatu zuen, eta liberal demokrata gisa agertu zen. Bilboko alkatea izan zen, besteak beste, eta hirian ospe handia izan zuen. Gainera, Bilboko Alderdi Kontserbadoreko kide izan zen denbora laburrean, eta Ekintza Monarkiko Ligako diputatua 1909an⁷⁵.

Honi dagokionez, Gregorio de Balpardak Bizkaiko Kodegintzarako Batzorde Bereziaren Apendize Proiektuaren inguruan hausnarketa kritikoa egin zuen. Bertan, lanak Bizkaiko Foru Zuzenbidearen hainbeste alderdien inguruan zituen iritziak jaso zituen. Lehenik eta behin, Gregorio de Balpardaren garaiko pentsaera ideologikoa nabarmendu behar da. Zuzenean jotzen *El Fuero de Vizcaya en lo Civil* lanera, de Balpardak esan zuen foru-legeriei buruz zuen iritzia eskola erregionalistaren ondorioetan oinarritzen zela⁷⁶. Beraz, kasu honetan, pentsatzekoa da egileak bere kritika zein ikuspuntutik egin zuen, eta hori erregionalismoarena zen, hau da, ikuspuntu foralistagoa. Bide beretik, de Balpardak nazio baten berezko legearen defentsa erakusten zuen, Zuzenbidearen filosofia bera aldarrikatuz. Horrela, Zuzenbidea gizarte-bizitzaren legea zela oinarri hartuta, bere tesiaren hasieran eskualdeak berezi egiten zituen, edo, gutxienez, gizarte desberdinak, beren ohiturengatik edo kulturagatik, eta horietako bakoitzak bere legea izan behar zuen. Are gehiago, gizarteen arteko bereizketa hori egin ondoren, egileak gai dualistaren inguruan zuen iritzia partekatzen zuen, baita bi gainjartzen zirenean gizarte batentzat zein zen egokiena ere. Alde horretatik, de

⁷⁵Gregorio Balparda y Herrerías. www.bilbaopedia.info/gregorio-balparda-herrerias

⁷⁶ DE BALPARDA Y HERRERÍAS, Gregorio: *El Fuero de Vizcaya en lo civil*, Bilbo: Imp. de la Casa de Misericordia, 1903, 6.orr.

Balpardak hoberena lege propioa beti izango zela adierazten zuen, eta, gainera, ahal zen heinean, bakarra izan beharko lukeela. Horrela ez izatekotan, nazio baten garapena bertan bera geratzeko arriskua egongo litzateke, bere hitzen arabera, "bizitzeko eskubidea ukatzea da, eta, horren barruan, eraldaketa eragitea gizarte-erakunde gisa hiltzea ekarriko lukeen"⁷⁷.

Gregorio de Balpardaren posizio ideologikoa argituta eta haren lanak zertan oinarritu zuen argituta, orain haren edukia ezagutzea geratzen da. Esan dudan bezala, de Balpardak Apendizearen proiektuari *El Fuero de Vizcaya en lo Civil* lanean kritika bat egin zion. Honetan, de Balpardak Bilboko zabaltze-planaren gaia ia ez zuen aipatzen, baina gaiari buruzko kezka adierazi zuen, "garrantzi handiko" gaitzat hartu baitzuen, aipatu diren beste egile batzuek egin zuten bezala⁷⁸. Hala ere, udalerrri beraren barruan jurisdikzioa bateratzeari buruzko kritika egin zuen, eta iritzia eman ere. Hortaz, Gregorio de Balpardaren aburuz, udalerrri baten anexioa ematean legeria bat edo bestea aplikatzea erabakitzea, Apendizean bildutako erabaki diskrezionala zen. Baina, de la Plazaren lanean ikusten zen bezala, de Balpardaren asmo bateratzailea ikusi ahal dugu, hau da, haren arabera, hobe zen lege-gorputz aplikagarri bakar bat egotea. Hori bi zentzutan ulertu behar da: udalerrri baterako legegintza-batasuna, bai eta Bizkaiko probintziaren lurralderako ere. Alde horretatik, de Balpardak proiektutik bi artikulua hartu zituen legeak bateratzeari buruz zuen ideia oinarritzeko: lehenago aipatu ditudan 4. eta 5. artikulua. 4.ak lehenengo kasuari buruz hitz egiten zuen, eta udalerrriaren barruan legeak bateratzea aurreikusten zen. De Balpardak bazekien Kodegintzarako Batzorde Bereziak asmo hori zuela, halaber, termino batean aplikatu beharreko legeria zein izango zen erabakitzeko, kasu bakoitzean eranskina nola egiten zen kontuan hartu zuen, eta artikulua honek eta 5.aren egokitasuna txalotu zuen Bizkaiko Forua probintziako legeri orokor bezala izendatzeagatik.

Beraz, Gregorio de Balpardak probintzia mailako lege-bateratzeako joera zekarren, non Forua Estatuko lege komunaren aurretik aplikagarritzat hartzen zuen, 1630eko Konkordiaren arabera hiribilduek Forura atxikitu zezaketelako, eta elizateek ezin zuten Estatuko ordenamenduarekin gauza bera egin. Bere ustez, hobe zen foru legea ezartzea, orokorra zelako eta probintzia barruan errotuena zelako, eta, haren arabera, Bizkaiko probintzian aplikatzen zen lehena zelako. Gainera, kontuan hartzen zuen Forua, hiribilduen barruan aplikatzen zitzaiela baserriei eta horien jurisdikzioan zeuden zenbait landa-lurrei.

⁷⁷ *Ibidem*, 7. orr

⁷⁸ *Ibidem*, 54. orr.

Azkenik, legedi komuna, Estatukoa, ezin zela probintzia osoan aplikatu gaineratu zuen, hiribilduen pribilegioa eta eskusiboa zelako; eta, beraz, ezin zen Bizkaiko lege orokortzat hartu.

Bere ideiak modu praktikoagoan bideratzeko, eta Bizkaiko Forua zergatik izango litzatekeen errazagoa aplikatzeko hobeto uler zezan, azken batean, aplikazio horrek hiribilduetako legerian zer neurritan eragingo zuten uler zezan, de Balpardak probintzia osoan aplikatu beharko liratekeen hiru erakundeak ezarri zituen: tronkalitatea, oinordetza-eskubidea eta ezkontideen arteko foru-komunikazioaren araubidea. Lehenengoari zegokionez, de Balpardak erakunde horrek hiribilduetako landa-jabetzei soilik eragingo liekeela iradoki zuen, hau da, baserriei, eta, era berean, hiribilduko barruko gainerako ondasunei ez liekeela inola ere ez eragingo. Oinordetzen foru-legeriari dagokionez, Kode Zibila aplikatuko litzateke, trokalitatearen, ab intestato testamentuaren eta testamentu-askatasunaren kasuan izan ezik. Azkenik, foru-komunikazioa orain arte bezala izango litzateke, itunetan aplikatu beharreko ezkontza-araubidea zehazten ez bazen, subsidiarioa foru-komunikazioaren araubidea izango litzatekeela⁷⁹.

Bizkaiko hiribilduen barruko dualismo juridikoari dagokionez, de Balpardak zioen legeak bateratzea hiribilduen borondate-egintza huts gisa ulertu behar zela, eta inola ere ezin zitzaiela bultzatu nahitaez Bizkaiko Forua onartzera. Azken batean, De Balpardaren lanetik argi atera daitekeena zera da, ez zela asko sartu dualismoan udal-barruti beraren barruan. Zentzu horretan, Batzordearekin bat zetorren legeria bateratzeko beharrek, hiribilduen barruan zegoen desordenaren barruan ordena jarri ahal izateko. Bestalde, Bizkaiko Foruarekiko eta berak izendatzen dituen hiru erakundeekiko atxikimendu handia zuela ikusten zen, Bizkaiko legedi orokortzat hartzen baitzuen, eta probintzia osoan berdin aplikatu beharko zen. Beraz, de Balpardak aditzera eman zuen, de la Plazak egiten zuen bezala, udalerrri bakar baten barruan dualismo juridikoa bezain egoera kritikoa eragiten zuen jasanezintasunak premiazko konponbideak behar zituela, eta de la Plazak ez bezala, Gregorio De Balpardak hiribilduen borondatare jotzen zuela, eta ez arau diskrezional batera.

⁷⁹ DE BALPARDA Y HERRERÍAS, Gregorio: op. cit..., 56-57. orr.

- **Nicolás Vicario de la Peña (1866-1941)**

Lehen esan dudan bezala, garai hartan hainbat figura garrantzitsu egon ziren foru-zuzenbidearen eta Zuzenbide zibilaren munduan, eta arazo honi buruz haien iritzia eman zuten. Horien artean, Nicolás Vicario de la Peña karrantzarra dago. Abokatu gisa hasi zen, eta kasu garrantzitsuak irabazi zituen, ospea lortuz. Geroago, notariotzetarako oposizioa egin zuen, eta jabetza-erregistratzaile izatera iritsi zen. Kargu horrek Espainiako eta Bizkaiko hainbat herri eta hiritan bizitzea ahalbidetu zion. Bizkaiko Zuzenbideari buruzko ikerlaria izan zen, bai administrazio-arloan, bai arlo pribatuan, eta, horren ondorioz, hainbat lan idatzi zituen. Horien artean, 1901ean argitaratu zuen lehen liburua, *Derecho consuetudinario de Vizcaya* izenburupean, zeinetan foru-lurraldean mendez mende nagusitu ziren arau eta mekanismo horien errotzearen garrantzia jorratu zituen⁸⁰.

Obra honi dagokionez, de la Peñak tradizioetik sortu ziren foru-zuzenbide pribatuko erakunde guztiei ematen dien garrantzia gainditzen da. Haratago joanda, egileak bere lanaren amaieran Zuzenbide hori, Bizkaiko foru-zuzenbidea bere eremu pribatuan, XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran zein lekutan aplikatzen zen erakutsi zuen⁸¹. Hain zuzen ere, Nicolás Vicario de la Peñak Bizkaiko lurraldean hain funtsezkoak ziren arau horiek guztiak idazteko eta argitaratzeko beharra aldarrikatzen zuen. Beraz, de la Peña, de la Plaza eta de Balparda bezala, foru-zuzenbidea une hauetan bizitzen ari zen egoera kritikoaren jakitun zen. Egile honek alde batetik, foruak administrazio-esparruan ezabatuak izan zirela zekien; eta, bestetik, zenbait autore bezala erregionalismoaren aldekoa zen, eta, bere ustez mugimendu horren aldekoak tradizioetan oinarritu beharko ziren⁸². Argi dago Bizkaiko egile honen jarrera. Foruen eta Bizkaiko ohituren defendatzailea zen, beharrezko eta egoki ikusten baitzuen eremu pribatuko foru-legeriari buruzko lege-gorputz modernoagoak idaztea Espainiako kodifikazioaren garaian, non erregionalismoa indartsuago bihurtzen ari zen Estatuak bere araudia sortu ahala. Horren ondorioz, Apendizearen proiektua sortzearekin batera, de la Peñak ere bere iritzia eman zuen, eta kritiko agertu zen Bizkaiko Kodifikazio Batzorde Bereziaren idazketaren aurrean.

⁸⁰ “Nicolás Vicario de la Peña” www.dbe.rah.es

⁸¹ VICARIO DE LA PEÑA, Nicolás: *Derecho consuetudinario de Vizcaya*, Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, 1995. 336-337. orr.

⁸² *Ibidem*, 330-333. orr.

Horrela, de la Peñak Batzordeak legeria zibila udalerrri bakar batean bateratzeko borondatea gorai patzen zuen, bai eta Batzordearen beraren lana ere, Forua jada indarrean zegoen lur lauaren foru-zuzenbideari eustea ahalbidetuz. Horrela, Vicario de la Peñak Apendizearen lehen artikuluetako idazketa urrun batzuk besterik ez zituen aurkitzen, lehenago ere nire lanean tratatuak izan direnak, eta probintziaren zein esparru lurraldearen gobernatuko zuen Eranskina aztertu zuen⁸³. Vicario de la Peñak proiektuari eta haren idazketari egin zion kritikarik handiena hainbat foru-erakundeen, idatzizkoak zein ohiturazkoak, bazterketan oinarritzen zen. Horrek ez zuen zerikusirik lan honekin, ez baita bere kritikarik interesatzen zaidana, Bilboko hiribilduaren dualismoari buruz esan zuena baizik. Egia da bere lanean Abandori buruzko aipamen pare bat egin zituela, fenomeno juridiko horrek udalerrri bakar batean eragin zituen konplikazioak aipatzeko, baina ez zuen gaia sakonki jorratu. Azkenik, aipagarria da Vicario de la Peñak Bizkaiko auzotarren hasierari eta desagertzeari buruzko proposamen gisa eskaintzen zuen ekarpena, hau da, haren arabera, oso garrantzitsua zen argi uztea zein pertsonari aplikatzen zitzaion zer Zuzenbide. Kontran, Apendizeak ez zuenez problema hori zehaztu edo konpontzen, Vicario de la Peñak hainbat arazo sortuko zirela aurreikusi zuen, Kode Zibilaren arauen eta indarrean zegoen foru-araubidearen arteko aplikazio-aldea zela eta.

- **Rodrigo Jado y Ventades (1855-1922)**

Honen inguruan bere iritzia adierazi zuen beste egile bat Rodrigo de Jado y Ventades izan zen. Egile honek *Derecho civil de Vizcaya* idatzi zuen, non Bizkaiko lurraldearen legegintza- eta lurralde-historia kontatzen zuen. Egia esan, lan honek ez zioen ia ezer berririk gehitzen gaiari, baina azalpen gehiago ematen zituen erakunde bakoitza xehetasunez azaltzean eta horrekin batera jurisprudentzia gaineratzean, bere apunteekin batera. Autore hau ere aukeratu dut, Bilboko gaian sakon jorratu egin zuen egile bat delako. Horrela, nahiz eta anxio-prozesu osoa kontatu, dokumentu bat gehitu zuen, oso erabilgarria dena 1870eko atxikipenetan Estatuko Zuzenbide komuna aplikatzeko arrazoia ondorioztatzeke, eta ez foru-zuzenbidea aplikatzeko arrazoia, Abandon eta Begoñan ohikoa zen bezala.

Dokumentu hori Erresumako Erregeordearen 1870eko ekainaren 28ko Agindua da, zeinetan 1861eko apirilaren 7ko Legean aurreikusitakoa anxioei begira berrestu egin zen.

⁸³ *Ibidem*, 364. orr.

Agindu horren jatorria Abandoko eta Begoñako Udalek Bilboko Udalari galdetu ziotenean ea bi elizateek eranskinak egin aurretik hitzartuta zituzten errematatzaileen kontratuen ordainketak bere gain hartzen zituen, nahiz eta eskaera Abandoren kasuan zentratu zen, Bilbok beste erremate bat sei hilabetetan egitea saihestu nahi baitzuen. Bilbok eskaera bat egin zion Bizkaiko Aldundiari, eman zitzaion jurisdikzio-termino berrian arbitrioak pentsatu eta administratzeko baimena eman diezaioten eskatuz. Muga hori ezetsi egin zen, eta horren ondorioz, Bilboko udalerrriak errekurtsioa jarri zuen Erresumako Erregeordearen aurrean⁸⁴.

Errege Aginduari helduz, lehen esan dudan bezala, anexio-legeak dioena errepikatzen zuen, eta, horregatik, Bilboko Udalari arrazoia eman zion, honako hau esanez: "Abandoko Udalaren aukera horrek [eranskin partziala] ez du aukerarik ematen 1861eko apirilaren 7ko Legearen 4. artikulua aplikatzeko, eta, beraz, elizateek ez dute nahi foruan ondasunen tronkalekotasun-kontratuei buruz dagozkien lege berezien arabeko pribilegiorik..."⁸⁵. Argi dago, beraz, alde batetik Forua ez zegoela indarrean Bilbok atxikitu zuen Abandoko lurralde partzalean, eta, beraz, kontratuei buruzko legeria Bilboko hiribilduaren lege komunaren bidez arautzen zela. Era berean, legedi aplikagarriaren arloan beste bi gauza ere aipatzen zituen: langile batzuk, hiribilduaren barruan bizi ziren bizilagun guztiak eransketatik abiatuz, Espainiako lege komunaren bidez arautzen zirela; eta une horretatik aurrera, udal-administrazioa, baita arbitrioak ere, Bilboko udalerrriari zegokiela.

Azkenik, aurreratu dudan bezala, Erregeordearen Aginduak 1861eko apirilaren 7ko Legeak ematen zuena berretsi zuen, eta zehazki 3. eta 4. artikulua erabili zituen Abando eta Begoñak ez zutela aukerarik Foruari beren lurraldetan eusteko argudiatzeko, nahiz eta Bilbok erantsi, elizateen lurralde osoa ez baitzen oraindik Bilbora "batzen". Jadok berak iritzia eman zuen foru-lurralde batek indarra galdu eta komunera bihurtzen zen gertaerari buruz, baita Aginduari buruz ere. Bere ustez beharrezkoa zen hiribilduen barruan dualismo hori desagertzea, horrek "anarkia juridikoko" egoera sortzen baitzuen, baina absolutistatzat jotzen zuen Zuzenbide komuna Forua indarrean zegoen lurraldean ezarri nahi izatea⁸⁶. Ildo beretik, Foru-lurraldea lege komunaren mende jarri nahi izateko printzipio onak zalantzan jartzen zituen; azken batean, Jadoren arabera, asmo horiek Aginduan bi modutan ikus zitezkeen:

⁸⁴ JADO Y VENTADES, Rodrigo: *Derecho civil de Vizcaya: comentarios a las leyes del Fuero de Vizcaya con la jurisprudencia del Tribunal Supremo de Justicia y de la Dirección de los Registros Civiles, de la Propiedad y del Notariado : precedidos de un estudio acerca del territorio en que rigen esas leyes*, Bilbo: Imprenta de la Casa de Misericordia, 1900, 61. orr.

⁸⁵ *Ibidem*, 62. orr.

⁸⁶ *Ibidem*, 65. orr. Honetan, Jadok, Ángel Allenderen hitzak erabiltzen ditu bere iritzia emateko.

lehenik, irizpena inkongruentea zen, eta, zentzu horretan, Bilboko eskatzailea administrazio-zuzenbideari buruzko kasu zehatz batera mugatzen zen, eta zuzenbide hori, halaber, lege bitasunaren arazoan sartzen da, foru-zuzenbideari aplikazio-eremu irtenbide bat ematen ahaleginduz⁸⁷.

Agindua, haren edukia eta sor zezakeen eztabaidak ugariak izan ziren. Lehenik eta behin, Jadoren lanean eta aurkitu ahal izan ziren kasu praktikoek bidez irakur zitekeenez, eransketa-legea ezinbestekoa zen arbitroentzat eta epaileentzat, zer legeria aplikatu behar zen eta zer irizpideren bidez ebatzi ahal izateko. Hori, alde batetik, baina kontuan hartuta foru-zuzenbidea zer unetan zegoen, haren iraunkortasunari, edukiari eta aplikazio-eremuari buruzko etengabeko zalantza batean, irizpen honek abantaila hartu zuen Foru Zuzenbidearekiko, Estatuko Zuzenbidearen nagusitasuna ere goraipatzen. Agindua, Jadok zioen bezala, ebatzi behar zuenaz harago zihoan, foru-legeria eta legeri komuna noiz e erabili ezin ziren finkatu ahal izateko. Kontuan hartu behar da Agindu hori eman zen unean oraindik ez zela aldarrikatu 1876ko uztailaren 21eko legea, baina horretarako sei urte baino ez zirela geratzen. Horregatik, Bilboko Udalaren eskaerak ukatzen zuena Bizkaiko Foru Aldundia zen. Espainiako Estatuaren ikuspegitik, Bizkaiko udalerrien barruan legegintza-dualtasunaren arazoa konpontzeko egin zezakeen errazena eta argiena zen, Bizkaiko udalerrien barruan Estatuko legeri komuna ezartzea zen. Hori ez dut uste Jadok dioen bezala printzipio onak urratzeagatik bakarrik gertatu zenik, Espainiako Estatuak Bizkaiko Foru Zuzenbidea ezagutzen ez zuelako ere gerta zitekeen, eta baliteke 1861eko eransketa-legea aldarrikatzean ere arazo hori gertatzea; izan ere, nire ustez, ez zuen zentzurik Zuzenbide bat beste baten mende jarri behar izatea egile horiek eranste hutsagatik, lan horretan agertzen diren lanak argi eta garbi baitzeuden. Beraz, nire ikuspuntutik, egintza honen bidez Zuzenbidearen bateratzea bermatzeko oinarritzen ziren lehen pasuak argitzen dira. Baina esan daiteke, Zuzenbidearen eta logikaren aurka zihoala, oraindik indarrean zegoen lege-gorputza ez errespetatzen ez baitu, eta are gehiago, Estatuak berak Zuzenbide hori onartzen zuelako, beste era batera esanda, bere egintzen aurka zihoalako.

Lau egile horiek bazuten zerbait komunean: guztiek jakin bazekiten egoera juridiko horrek Bilboko hiribilduko eta Abando eta Begoñako elizateetako bizilagunen eguneroko bizitzan egonkortasun juridikoan zailtasunak sortzen zituela. Denek hartzen zuten kontuan

⁸⁷ *Ibidem*, 66-67. orr.

dualismo juridikoa, nahiz eta Bizkaiko probintzian hain berezkoa izan, udal bereko mugarteen barnean ematen zena amaitu behar zen egoera zela. Ildo horretan, zalantzarik gabe, Carlos de la Plaza izan zen lurralde-arazoei eta eztabaidei irtenbideak proposatzean gehien nabarmendu zena, eta sistema bat finkatu zuen anexioa eman zitzaien lurraldeei legeria bakarra esleitzeko. Zentzu horretan, de Balparda proiektu hori azkeneko Apendize bezala argitaratzeari uko egitearen aldarrikatzaileetako bat izan bazen ere, egoeraren jarraipenak zekarren errealitatea kontuan hartu zuen. Nolanahi ere, gerta zitekeen gizarte batentzat bere Zuzenbidea galtzeak kolpe handia suposatzea, azken batean, de Balpardak zioen moduan, Zuzenbidea herri baten errealitatearen erreflexua da. Hala ere, kontuan izan behar da gogoeta horiek bere etapa erregionalistan idatzi zituela.

Bide beretik doaz Vicario de la Peña, Rodrigo Jado bezala; lehenena ohituraren defendatzaile leiala zen, eta bigarrenak foru-lurraldeak zuzenbide erkidea betetzera behartzen zituen sistema bat foru-zuzenbidearen pareko arazoa izan zitekeela salatzen zuen, are gehiago Zuzenbide hori zegoen unean, eta haren iraunkortasuna bermatuko zuen Apendize batean biltzeko ezintasunean. Beraz, egia da autore guztiek dualtasun horri aurre egiteko beharra onartzen zutela, baina denek ez zuten modu berean egiten, eta logikoa da, bakoitzak bere ikuspuntu ideologikoa baitzuen, bakoitzak Forua maila batean edo bestean defendatzen zuen. Beraz, esan beharra dago garai hartako errealitate juridikoa historialariengan zein legelariengan zegoen, eta ez zela batere erraza izan arazoa konpondu ahal izateko elkar ulertzea; izan ere, Zuzenbide baten edo bestearen aplikazioaren arteko mugak ez ziren XX. mende erdira arte zehaztuko.

Apendizearen proiektua egitean, foru-zuzenbidearen barruan ordena jarri nahi izan zen, Kode Zibilean eta Espainiako ordenamendu zibilean sartzeko antolatu nahi izan zelako; baina, horrez gain, Bizkaiko foru-zuzenbidea bultzatu nahi izan zen, eta eztabaida bat ireki zen, horri buruz iritzia eman nahi zuen orok berarenaeman zezan. Jakina, Batzordearen aktak gaian interesa piztu zuen pertsona anitzetan, eta garai hartako legelarienak izan ziren eragin eta garrantzi handiena izan zutenak. Horien iritzia hain da garrantzitsua, ezen horren gaineko eztabaidak hainbeste luzatu ziren, non Apendizearen argitalpena ez zen emango. Beraz, garrantzitsua da Eranskinaren irismen-eza eta Batzordeak planteatutakoaren garrantzia ulertzea⁸⁸.

⁸⁸ MONREAL ZIA, Gregorio: *Fuentes del Derecho.*, op. cit., 664-645. orr.

3.2. Bitasuna epaitegietan

Egungo testuinguru historikoa eta garai hartako autoreen ikuspuntuak zeintzuk ziren azaldu ondoren, orain praktikan zein egoera izan zen eta arazo horri eman zitzaion azken irtenbidea aztertu behar da. Berez, Bilboko hiribilduan sortzen zen arazoa mosaiko juridiko gisa deskriba daiteke. Testamentu baten kasuan, adibidez, ez zen nahikoa auzotar eragilea Bilbokoa zenik jakitearekin, gehienetan etxebizitzaren kokapena ere begiratu behar zen. Hau horrela zen, anexio partziala eman zenez, kale batzuetan espaloi bat hiribildutik zetorren, eta beste batean, elizateak. Izan ere, Abandoren 1870ko anexioa hiri-mugak ezarri baino lehen egin zegoen, eta horren ondorioz, gerta zitezkeen eraikin batek zati bat foruduna izatea eta bestea ez foruduna⁸⁹.

Ikusi denez, banantzeen eta eranskinen kasuetarako konponbide-proposamenak egin ziren, garrantzitsuena Carlos de la Plazak Eranskina Kodegintza Batzordearen 13. bilkuran proposatu zuena. Hala ere, proiektu honek izan zituen atzerapenak eta ondorengo kritikak zirela eta, ez ziren modu praktikoan aplikatu. Hain zuzen ere, praktika da atal honetan interesatzen dena, doktrina beti oso lagungarria bada sor daitezkeen arazoei aurre egiteko, praktikan horrelako kasuei eta horien arrazoiari zer irtenbide aurkitu ahal zitzaizkien modu errealagoan eta naturalagoan ikusten baita. Hori dela eta, praktikotasun horretara hurbiltzeko modurik zuzenena foru-araubidearen instituzio pribatuei eta bere indarregotasun lurrandetarri buruzko eztabaida-kasuak aurkitzea da, hau da, Abando eta Begoñako elizate anexionatu berrien barruan ordenamenduak noiz aplika ziitezkeen ala ez jakitea. Egia esan, bilatu nahi dena elizateak Bilboko hiribilduaren barruan sartzean instituzio horiek arau iraungiak ziren jakiteko, eta, beraz, aplikatu beharreko legeria Espainiako Estatuarena bazen edo ez.

- Auzitegi Gorenaren 1927ko ekainaren 2ko Epaia

Azterlan honen helburua Bilboko hiribilduaren beraren barruan zegoen lege bitasunean zentratzen denez, epai bat oinarritzat hartzea, Espainiako Auzitegi Gorenak bi

⁸⁹ ALONSO OLEA, Eduardo. J.: “Y después qué...”, op. cit., 7. orr.

legerietatik zein aplikatu behar zen erabakitzeke hartu zuen jarrera ebatzi eta argi uzten zuena, testuinguru berantiar batean garrantzitsua iruditzen zait. Honela izanda, 1927ko ekainaren 6ko epaia aurkezten da, paragrafo sinple hauek aztertu eta azalduko ditudanak⁹⁰. Epaiarekin edukiarekin hasi aurretik, jakin behar da zer aurrekari izan zituzten alderdiek azkenean epaiketara joateko. Alde batetik, Fernando Pimentel jaunak demanda betearazlea jarri zuen Enrique Allende jaunaren aurka, eta haren amaren, Maria Allende andrearen, herentzia kobratzeko testamentu-eskubideak enbargatu zitzaizkion Enriqueri. Nolanahi ere, jaraunspena jasotzeko eskubide horiek jada ez ziren existitzen eta ezin ziren existitu auzia ebazterakoan, izan ere, Enriqueren aitak, Tomás Allende jaunak, emazteak Bizkaiko Foruaren arabera emandako testamentu-ahalordea erabili izan zituen, Enrique jaraunspenetik aldentzeko.

Epai hori anexio handietako bat amaitu eta gutxira eman zen: Deustukoa eta Begoñakoa (1925). Beraz, epai hori eman zen testuinguruan kokatu behar da. Une horretan, hiribilduaren eta elizatearen arteko lege-zatiketa areagotu eman zen eta, 1861eko legearen arabera, udalerrri osoa eranstea, Forua mantentzen zen aplikatu beharreko lege gisa. Orduan, aurrerago ikusiko den bezala, epai horrek aurrekari bat ezarri zuen lurralde-eremu batean edo bestean zein lege aplikatu behar zen ebazteko.

Horren ostean, Fernando Pimentelek Tomás Allenderen aurkako demanda jarri zuen, Foruaren arabera emandako testamentua deuseztatzeko eta testamenturik gabeko oinordetza irekitzeko eskatuz, Enriqueren aitak eta amak ez baitzuten bizkaitar auzotasunik, Madrilen jaio baitziren. Demandari erantzunez, Tomás Allendek Bizkaiko auzotasun hori bazuela alegatu zuen, bere etxea Bilbon zuelako, desagertutako Abandoko elizatearen lurraldean, eta, gainera, Erregistro Zibileko arduradunaren aurrean Bizkaiko auzotasuna lortu nahi zuela adierazi zuen. Auzitegi Gorenak, epai horren arabera, aitak, Tomasek, arrazoa zuela erabaki zuen, ez baitzuen zerikusirik bere jaio lekua Madrilen izan zenik, beti ere Bizkaiko auzotasuna baldin bazuen; beraz, Bizkaiko lur lauan berezko erakundeak eta elizateetan aplikatu zitekeen foru-legeria erabiltzeko eskubidea lortu zuen.

Hala ere, kasu honetan benetan interesatzen dena Auzitegiaren oharrak eta argudioak dira, Abando anexionatzeari dagokionez. Hori dela eta, magistratuen laugarren "kontuan

⁹⁰ CELAYA IBARRA, Adrián: op. cit., 376-380. orr.

hartuzkoan", Bilboko egoera azaltzen zuten, baita hiribilduaren hedapenaren beharraren zergatia ere. Era berean, dualismo juridikoa kontuan hartzen zuten, ez bakarrik Bizkaiko probintziaren barruan, baita udalerrietan ere. Jakina zenez, elizateak hiribilduekin batu izan zirenean eta hiribilduaren beraren mende jartzean, foru-legeria galdu egiten zuten (Abandoko kasua 1870ean). Baina, magistratuek aitortzen zuten 1890ean anexionatutako Abandoko zatia ez zegoela egoera berean, eta, beraz, horrek foru-legeriari eusten ziola, nahiz eta Bilbok irentsi. Testu horren arabera, Auzitegi Gorenak bat egiten zuen Carlos de la Plazak eta Eranskinaren Batzordeak berak egiten zuten interpretazioarekin, eta, 1861eko apirilaren 7ko legearekin bat etorriz, 1870ean Abando osorik Bilbori anexionatu ez zitzaionez, orduan batu zen zatiak foru-legeria galdu zuen, eta hori ez zen gertatzen 1890ean Bilbora batu zen Abandoko gainerakoarekin, eta han zegoen kokatuta demandatuak bizi ziren baserria.

Hasteko, deigarria suertatzen da, lehenengo auzialdiko epaitegiari zegokiola adieraztea zein zen kasu bakoitzean aplikatu beharreko legeria, baina ageriko akats bat egonez gero, kasazioan berrikusi eta aurkako legeria eman ahal izango zitekeen, hala balitz. Auzitegiak aipamen berezia egiten zion lehen auzialdiko lanari, zer legeria aplikatu behar zen erabakitzeke orduan, Bilboko udalak Abandoko udala irentsi baitzuen ere, ez zen gauza bera gertatzen arlo zibilean, eta, horregatik, berebiziko garrantzia zuen pertsonaren etxebizitzaren kokapenak kasu horietan. Horrela, Auzitegi Gorenak garrantzi handia ematen zien 1870eko gehitze partzialaren eta 1890eko guztizko anexionaren artean zeuden legeei eta gertakariei. Izan ere, epialeek une horretan Bilboren arazoari konponbidea bilatzeko lan handia egin zutenez, argudio-tresna gisa, kasu bakoitzean aplikatu beharreko legeria eta Bizkaiko Kodegintzarako Batzorde Bereziak jasotakoa erabiltzera mugatzen zen. Kasu honetan aplikatu beharrekoa 1889ko Kode Zibila izango zitekeen, haren 10. eta 12. artikulua, ondasun higiezinak dagokienez aplikatu beharreko legeria buruzkoak, eta arau-gatazken kasuan aplikatu beharreko legeria. Jakina, Bizkaiko Foruaz baliatzen zen kasu honetan aplikatu beharreko legeria ezagutzeko. Baina 1890eko martxoaren 20ko akordioa ere aipatzen zuten; horren arabera, Abandoko elizatea Bilbotik oso gertu zegoen.

Azken arau hori funtsezkoa zen Abandoko zati horretan forua nagusitzen ote zen edo, aldiz, aplikatu beharreko legeria Kode Zibila ote zen zehazteko. Ildo horretan, ezaguna da 1861eko apirilaren 7ko Legeak, elizate anexionatu batek Forua mantentzeari buruz ezartzen zuena. Hau kontuan hartuz, Auzitegiak honako hau zioen: "Hirugarren arrazoiari dagokionez, hau da, Abandoko Udalak 1890eko ekainaren 20ko akordio horrekin erantsi zuen arrazoiari

dagokionez, Allende jaunak Abandoko elizate agregatuaren lurraldeko beren izenaren hiribilduan bizi eta bizi baziren, normala da auzotasuna Bilboko hiribildu bakarrean izatea, baina horrek ez du esan nahi epaileak forua aplikatu behar zutenik...". Horrek aukera ematen zuen Forua Bilboko zer puntutan aplikatzen zen jakiteko; eta Abandoko zati horretan, behintzat, indarrean jarraitzen zuen Lehen instantziako sententziaren lanarekin amaitzeko, honako hau adierazi zen: "Frogatuta dago Abandoko elizatea, non Allende jaunaren bizilekua dagoen, eta lehen haren emaztea ere infanzonatu den, eta Bizkaiko Forua aplikatu behar da, eta ez Kode Zibila...". Honekin batera, epaileak foruaren aplikazioa argudiatzen zuten, kasu honetan, bi modu desberdinetan. Lehenik eta behin, Abandoko elizatean Kode Zibila aplikatzen zela adierazten zuen legerik ez egotea (hau da, hiribildua ez izatea), eta, era berean, bertan Bizkaiko Forua aplikatzen ez zela esatean. Bigarrenik, Abandoren anexoari buruz indarrean zegoen legediak ez zuela besterik esaten, eta ez zuela botere administratiborik baino gehiagorik ezartzen. Babesteko beste iturririk ez zuenez, magistratuak Kode Zibila erabiltzen zuen bere argudioak funtsatu ahal izateko. Adibidez, 10. eta 12. artikulua Bizkaiko lurraldean foru-legeria zegoela azpimarratzeko etengabe kontuan hartu ziren, eta, hain zuzen ere, 10.a zen, magistratuaren arabera, Abando infanzonatuarena izanik, nahitaez Bizkaiko Forua arautu behar zuena.

Epai horretatik, lehen ere esan dudak bezala, garrantzitsua da gogoraraztea zein izan zen Auzitegiak zalantzaren arazoari eman zion konponbidea eta egoera horren interpretazioa. Beharbada, Bizkaian ematen zen kontua zenez, hain berezkoa, gerta zitekeen Auzitegi Gorenak, Madrilen egonda, era egoki batean ez ulertzea ekar zezakela. Horregatik hain irtenbide 'legalista' bat aukeratu izana ulertzen dut, aplikatu beharreko legerian eta Batzorde Kodifikatzaile Bereziak defendatutako teorian oinarrituta. Hala eta guztiz ere, epai-emaileek Abando eta Bilbo arteko lege-egoera argitzen saiatu behar zuten. Azken batean, epai horrek Bilboko hiribilduaren Zuzenbidearen aplikazio-eremuari zegokionez aurrekariak ezartzen zituen. Ez zuen soilik argi eta garbi uzten demandatuek Bizkaiko auzotasun zibila zeukatela, eta, beraz, aukera ematen zitzaiela foru-legeria egoki erabiltzeko, nahiz eta haiek Espainiako beste puntu batekoak izan. Mamitsua zen lan honetan mugen inguruan aztertzen zena, hau da, Bilbo barnean, non aplikatzen zen Estatuko Zuzenbide komuna, eta non forala.

Epai horrek demandatutako aldea Abandoko elizateko auzotarrak zirenez 1890ean, Bilboko hiribilduak anexionatu baino lehen, eta Abandoko baserri horretan ohiko etxebizitza zutenek, Bizkaiko auzotasuna zutela, eta horrek foru-legeria erabiltzea ahalbidetzen zien.

Baina, epai horren garrantziaren arren, hiribilduen barruko lege-bikoiztasunaren arazoari irtenbide formalik eman gabe jarraitu zuen ia 30 urte gehiago. Amaieran, frankismoaren garaian, 1959an, Bizkaiko eta Arabako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioarekin, egin zen. Testu horrek bi lurraldeetako Foru Zuzenbidean iraun zezaketen arauak bildu, eta, bide batez, Zuzenbide horren aplikazioak sortzen zituen arazoak konpondu nahi izan zituen. Arazo horien artean, dualtasun juridikoa zegoen, bai Bizkaian, bai bertan zeuden hiribilduetan ere. Izan ere, legearen artikuluetan sartu aurretik, arazo horretaz hitz egiten zuen, eta, zehazki, Bilbon zegoen egoeraz. Honela, hiribildua eraldatu egin zen eta bere zabaltzeko beharra agertu zen berarekin. Baina, elizate anexionatuei buruz hitz egiten zuenean, ez zituen antzina Forua aplikatzen zen landa-eremutzat hartzen, baizik eta Bilbora erantsi egin ziren lurralde bezala, beraz, hiriguneak. Hortaz, Konpilazioaren legegileentzat, elizateak ohiak jada landa-eremua ez zirenez, eta hiri-eremu izatera igaro zirenez, ez zen beharrezkoa ezta egokia Forua aplikatzea. Horrenbestez, honako irizpen hau eman zen: "Beraz, salbuespen gisa, Bilboko udalerrri osoa Estatuko Zuzenbide komunatzat jo daiteke, hemen ez dagoelako Foruaren atzerapenik, **udalerrri osoan desagertu egin baita Forua izatearen arrazoia**"⁹¹.

V. ONDORIOAK

Lanean zehar, Bizkaiko probintzian egon den egoera juridikoa deskribatzen eta nabarmentzen saiatu naiz. Egoera horrek bizkaitar legegileek eta legelariak betidanik izan dutela Forua babesteko asmoa ikustarazten du, eta huraren biziraupena ere. Azpimarratu dudanez, azterketa honen xedea foru-zuzenbidearen adar pribatuan zentratzen da, eta, beraz, publikoa eta administratiboa garrantzi gutxiago izan dute. Foruaren arlo pribatua garrantzi handikoa izan zela argi utzi nahi izan dut, eta bere ezabatzea kolpe nahiko gogorra suposatzen zuela Bizkaiko foraltasunarentzat. Hala ere, lan honetan islatu nahi izan dudana Bizkaian dualismo juridikoa sorrarazi izan dituen egoera desberdinak izan dira. Beraz, kasu zehatz batek erakarrita, Bilbokoa eta gaur egungo Abando eta Begoña auzoetan emandakoa, egoera horietako bat nabarmendu nahi izan dut, non foru-zuzenbidea eta Estatuaren Zuzenbide komuna gatazkan egon ziren, elkarrekin bizi izan baitziren espazio txiki batean.

Gai honek izan duen tratamenduari dagokionez, nabarmentzekoa da garaiko lekuko lanen erabilgarritasuna. Ggai horri buruz idatzi zutenek, legelariak izateaz gain, eztabaidan

⁹¹ 39/1959 Legea, Bizkaiko eta Arabako foru-zuzenbide zibileko Konpilazioari buruzkoa. BOE, 1959ko uztailaren 31n. Letra lodia nik jarritakoa.

aktiboki ere parte hartu zuten. Carlos de la Plaza eta Gregorio de Balpardaren kasuetan, esaterako, Kode Zibilaren Apendizearen eta dualismoaren arazoari konponbidea bilatzerakoan zuzenean zerikusi handia izan zuten. Aditu horien lanen bitartez ulertu ahal izan dut dualismo juridikoak benetako arazoak ekarri zituela anexiak gertatzen ziren udalerrietara. Nire kasuan, Bilbo aukeratu dut, probintziako hiribildurik garrantzitsuen izateagatik, eta Bizkaiko lurraldean egin zen anexio deigarrienak izateagatik. Carlos de la Plaza, Gregorio de Barpada, Rodrigo de Jado edo Nicolás Vicario de la Peña autore horien guztien testuak irakurtzean, argi ikusi dut guztiek udalerri bakar batean Zuzenbide bakarra ezartzeko zuten nahia. Beste era batera esanda, lan honetan azaldu ditudan egileek dualismoaren arazoak ezagutzen zituzten, eta honek zer eragin liokeen udalerri baten ongizate juridikoari, kasu honetan, Bilbokoari. Hori dela eta, udalerri bakoitzerako lege-uniformizazioa ezarri nahi izan zuten, barruan zegoen bitasun juridikoarekin amaitzeko. Probintzia-mailan, ordea, dualismo juridikoa ez aldatzea defendatzen zuten. Hau horrela izan daiteke, Bizkaian lur laua zer zen eta hiribilduak zeintzuk ziren nahiko argi zegoelako. Beraz, elizateen atxikimenduek sortzen zituzten arazoak nabariak ziren eta lehenbailehen konpondu behar zela egoera hori uste zuten. Alde horretatik, Apendizearen Batzordeak gaia konpontzeko egin zituen proposamenen inguruko iritzia autore bakoitzaren ideologiaren arabera izan bazen ere, konponbide bat jartzerakoan, denak ados zeuden: Bilbon lege-uniformizazio bat inposatu behar zela.

Beste gauza iradokitzaila bat, indarregotasun lurraldetarraren inguruan, auzitegiek egindako lana izan da. Hain zuzen ere, legegileen eta egileen aldetik arazoa konpontzeko asmo argia egon arren, konponbide horren etorrera atzeratzeak arau-hutsune bat sortu zuenez, auzitegietan Zuzenbide bat edo bestearen aplikagarritasunari buruz erabaki behar izan zuten. Horrela, epaileek eta magistratuek oinarri bat sortu zuten, eta legeria aplikagarria noiz zen eta noiz ez zehaztu zuten. Garai hartan Auzitegi Gorena zen azken hitza zuena, berari zegokiolako litis baten gaineko behin-betiko erabakia hartzea. Era berean, Auzitegi horrek gai hori buruzko eduki oso mamitsua eman zuen 1927ko ekainaren 6ko epaia aukeratu dut. Epaia hori Bilbo barruko dualismoari buruzko garrantzitsuenetakori bat dela ulertu behar da. Hainbat aurrekari aztertu eta lehen urrats ezarri zituen, Bilboko panoraman ordena jarri ahal izateko. Galdetu genezake zergatik ez ziren irtenbide horiek lege batean hartu, aukera eta gaitasuna hor baitzeuden. Legeria-falta hori, nire ustez, 1876ko uztailaren 21eko legea promulgatzearen eta honen ostean hartutako neurrien ondorioa izan liteke, Bizkaia une horretatik aurrera araugintza-ahalmenik gabe geratu baitzen Batzar Nagusiak abolitu izan

zirenean; beraz, une horretatik aurrera arau eta lege oro Estatuko Gorteetan onartu behar ziren. Gainera, adierazi behar da, Espainian Bizkaiko Forua ordemandu eztabaidatu bat zela, honen adierazela Senatuan 1865ean gertatutakoa da⁹². Hala eta guztiz ere, Espainiako legegileak Kode Zibilarekin bat egiteko aukera emango zuen Apendizearen zain zeuden. Testu horretan Bizkaiko lur lauan aplikagarria izango zen legeria pribatu guztia zegoen, eta baita non egongo zen indarrean ere. Apendizearen proiektua atzeratu egin zen, eta, araurik gabe, epaileek eta magistratuek irtenbideak bilatu behar izan zituzten. Konponbide horiek gaiari argitasuna eman ziezaiokeen araudi eskasean oinarritu zitezkeen, hala nola, 1861eko apirilaren 7ko eransketa-legean edo Kode Zibilean bertan. Gainera, azpimarratzekoa da doktrinak auzitegien erabaki horietan garrantzi handia izan zuela; honela, aplikatu beharreko araudi eskasak argudiaketa bat emateko aukera zaildu egiten zuen, eta horrek eragin zuen lan honetan jorratu direnen moduko egileen iritziak eta proposamenak funtsezkoak izatea legeri erabilgarri urria osatu ahal izateko.

Egia esateko, egoerak eskatzen zuen konponbidea lege arau batean eman behar zen, baina hori iristeko urte batzuk falta ziren. Bilborentzako konponbidea 1959ko Konpilazioarekin iritsi zen. Bertan erabaki zen, elizate ohietan Forua erabilerarik gabe zegoenez, hiribildu osoan Kode Zibila aplikatzea legeri gisa. Egia da elizateak hiritartzean, Forua aplikatzen zen lur laua beti identifikatu zuen ‘landartartasun’ hori galtzen zutela. Dirudenez, Forua baserrien zuzenbidea zen, eta ez pisu anitzeko etxebizitz -erakinena, edo hori pentsatzen zuten Konpilazioaren egileek 1959an. Baina ordenamendu horrek ez zuen ekarri Bizkaia osoan gauza bera gertatzea, dualismoa oraindik ere Bermeo edo Elorrio bezalako hainbat hiribilduen udalerrien barruan zegoelako, baina Bilboko kasurako konponbide hori erabaki zen.

Frankismoaren garaian jarri zen konponbide horrek gaur egun arte iraun du, eta hala ikusten da Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Zuzenbide Zibilari buruzko uztailaren 1eko 3/1992 Legean eta Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legean. Modu esanguratsuan, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko 5/2015 Legeak helburu bateratzailea du, 4. eta 8. artikuluetan ikus daitekeena, non biek aipatzen duten, salbuespen gisa, legea Euskal Autonomia Erkidego osoan aplikatu behar dela. Nire ustez, oso egokia da araudien aldetik

⁹² MONREAL ZIA, Gregorio: “Codificación civil y legislación foral...”, op. cit., 188. orr. Gertakizun horren arrazoia da Andaluziako Manuel Sánchez Silva senatariak Forua asmatu gisa, erabiltzen ez zela, ezertarako balio ez zuela eta Estatu espainolak Bizkairako Foru berri bat sortu behar zuela.

hain gatazkatsua den giroan, hots, Bizkaian, funtsezkoa den hiru probintzietarako Zuzenbide zibila biltzen duen lege bat izatea. Berez, bateratze horren itzura euskal auzotasun zibilaren bitartez gertatzen da, zeinak zuzenbide pribatu bakarra biltzen baitu autonomia-erkidegoan, baina garrantzitsua da aipatzea kontuan hartzen dela legitimazio pribatu desberdinak daudela, adibidez, lur lauaren eta ezkontideen arteko foru-komunikazioaren kasuan, biak Bizkaiko foru-lurraldekoak badira soilik ahalbidetzen baitu⁹³. Lege hori eta, zehazki, bi artikuluko horiek, gaur egungo legegile zibil eta foralen artean dagoen asmo uniformista ikus daiteke; beraz, XIX. mendearen amaieratik XXI. mendearen hasierara arte aldatu ez den pentsamendu-lotura dago. Horrela, batzuen eta besteen ideiak alderatzen baditugu, Estatu mailan Foruari hainbeste kalte eragin zion uniformismo hori agerian geratzen da, eta Bizkaian ez ezik, Autonomia Erkidegoan ere bilatzen da. Beraz, bi ikuspegietatik argi eta garbi atera nahi dena irtenbiderik egokiena zela eta dela Zuzenbidea bateratzea da, bai estatu, probintzia, autonomia edo udal mailan, eta hori ere 2015eko legea promulgatu zenean gertatu zen.

Lan honen amaieran, galdera hau geratzen zait: ea posible den udal mailan dualismo juridikorik egotea. Nire ustez, egileen lanak aztertu ondoren, ez dut posible ikusten udalerrri baten bezalako hedapen koskor duen lurralde batean aldi berean bi ordenamendu egon daitezkeenik. Beraz, Zuzenbideak, eta are gehiago Zuzenbide pribatuak, lurralde-muga bereizgarria izan behar du, eta, ezin bada probintzian izan, udalerrri berean behintzat, udalerrriko bizilagunei bizia errazteko, Carlos de la Plazak esan zuen bezala. Beharbada, arazoa ez da egoera hori gertatzea edo ez gertatzea, jasotzen duen tratamenduan baizik. Bilboko hiribilduaren eta elizateen anexionen kasuan jasotakoa ez zen onena izan, ez hura konpontzeko asmoagatik, baizik eta lege bidezko konponbide praktikorik ez zegoelako eta konponbide hori atzeratu zelako. Dena den, frogatuta geratu denez, arazoari tratamendua emango zion lege bat garaiz egongo balitz, esan liteke konponbide guztiek ekarriko luketela uniformizaziora, 1899ko Apendizearen proiektuan, 1959ko Konpilazioan edo Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko 2015eko Legean bertan ematen den bezala. Hori dela eta, ezinezkoa dirudi, lehen begirada batean gutxienez, Zuzenbide pribatuan dualtasun juridiko ordenatua eta arautua egotea udalerrri baten mugen barnean, horren inguruko arazoak konpontzeko asmo orok Zuzenbidea udalerrri osoan uniformizatzerara eramaten baitu.

⁹³ URRUTIA BADIOLA, Andrés M.: *“Análisis sistemático de la ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho civil vasco”*, Madril: Dykinson, 2020, 432. orr.

V. BIBLIOGRAFIA ETA WEBGRAFIA

- *Actas de las sesiones celebradas por la Comisión Especial de Codificación de Vizcaya*, Bilbo: Zuzenbidearen Euskal Akademia, 2004.
- ALLENDE SALAZAR, Ángel: “El dualismo en la legislación civil de Vizcaya”, *Revista general de legislación y jurisprudencia*, 27. tomoa, 54. zenbakia, 1879.
- ALONSO OLEA, Eduardo. J.: “Y después qué... Efectos de las anexiones de Abando, Deusto y Begoña a Bilbao. 1870-1936”, *Bidebarrieta: Revista de humanidades y ciencias sociales de Bilbao*, 22. zenbakia, 2011, 47-60. orr.
- ARREGUI CIVANTOS, Andere: “*El crecimiento colateral la presión urbana de Bilbao sobre la anteiglesia de Abando. Un estudio de su población y su territorio en el siglo XIX*”, Bilbo: UPV/EHU, 2020.
- AYERBE IRIBAR, María Rosa: “La administración de justicia en los territorios vascos”, *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*, 56. tomoa, 1. zenbakia, 2000, 5-51. orr.
- BARRUSO BARÉS, Pedro; BÓMEZ PIÑEIRO, Francisco Javier; SAEZ GARCÍA, Juan Antonio: *Geografía e Historia de Donostia-S. Sebastián*, Donostia: Euskal Geografia Elkargoa, 2013.
- BASURTO FERRO, Nieves: “A la conquista del espacio. Documentación sobre el contencioso para la anexión a Bilbao de las anteiglesias vecinas (1821-1890)”, *Bidebarrieta: Revista de humanidades y ciencias sociales de Bilbao*, 22, zenbakia, 2011, 7-22. orr.
- CASTELLS ARTECHE, Lluís: “La abolición de los Fueros vascos”, *Ayer*, 52. zenbakia, 2003, 117-150. orr.
- CELAYA IBARRA, Adrián: *Vizcaya y su Fuero civil*, Iruña: Aranzadi, 1965.
- DE ACILLONA Y LANDESA, Francisco Javier: “Erróneas interpretaciones dadas la jurisprudencia vizcaína del Tribunal Supremo”, *Anuario de Derecho civil*, 2. zenbakia 1959, 653-687. orr.
- DE BALPARDA Y HERRERÍAS, Gregorio: *El Fuero de Vizcaya en lo civil*, Bilbo: Imp. de la Casa de Misericordia, 1903.
- DE LABAYRU Y GOICOECHEA, Estanislao Jaime: *Historia General del Señorío de Vizcaya*, Madril: Librería de Victoriano Suarez, 1895.
- DE LA PLAZA SALAZAR, Carlos: *Territorios sometidos al Fuero de Vizcaya en lo civil*, Bilbo: Zuzenbidearen Euskal Akademia, 1899.

- FAIRÉN GUILLÉN, Victor: *El fuero de Vizcaya en lo civil durante los siglos XVIII y XIX*, Madril: Reus, 1946.
- FERNÁNDEZ CUESTA, Gaspar: “San Sebastián: un modelo de la construcción burguesa en España”, *Eria: Revista cuatrimestral de geografía*, 88. zenbakia, 2012, 34-45. orr.
- GANGOITI BEASCOECHEA, José María: “Jerarquización social del espacio urbano en el Bilbao de la industrialización”, *Scripta Nova: Revista electrónica de geografía y ciencias sociales*, 7. extra zenbakia, 2003
- GARCÍA PÉREZ, Rafael D.: “Derechos forales y codificación civil en España (1808-1880)”, *Anuario de Historia del Derecho Español*, 82. zenbakia, 2012, 147-174. orr.
- GIL RODRÍGUEZ, Jacinto: *Manual de Derecho civil vasco*, Bartzelona: Atelier. 2016.
- GUIARD LARRAURI, Teófilo: *Historia de la Noble Villa de Bilbao. 1, II eta III aleak*, Bilbo: Imprenta y Librería de José de Astuy, 1905-1912.
- IMAZ ZUBIAUR, Leire: “Euskal lurraldeen berezko sistema judiziala. Iraganaren eta etorkizunaren arteko zubia marrazteko erronka”, *Eleria: Euskal Herriko legelarien aldizkaria*, 20. zenbakia, 2010, 69-100. orr.
- JADO Y VENTADES, Rodrigo: *Derecho civil de Vizcaya: comentarios a las leyes del Fuero de Vizcaya con la jurisprudencia del Tribunal Supremo de Justicia y de la Dirección de los Registros Civiles, de la Propiedad y del Notariado : precedidos de un estudio acerca del territorio en que rigen esas leyes*, Bilbo: Imprenta de la Casa de Misericordia, 1900.
- MARTÍN RAMOS, Ángel: “El ensanche de San Sebastián, Antonio Cortazar y las referencias influyentes”, *Ciudad y territorio: Estudios territoriales*, 119-120. zenbakiak, 1999. 293-305. orr.
- MONREAL ZIA, Gregorio: *Instituciones públicas del Señorío de Vizcaya (hasta el siglo XVIII)*, Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, 1973.
- MONREAL ZIA, Gregorio: “Codificación civil y legislación foral en Vizcaya”, *Anuario de Historia del Derecho Español*, 83. zenbakia, 2013 185-251. orr.
- MONREAL ZIA, Gregorio: “La Ley abolitoria de Fueros de 21 de julio de 1876 (antecedentes y paso por el Congreso)”, *Iura vasconiae*, 2. zenbakia, 2013, 39-192. orr.
- MONREAL ZIA, Gregorio: *Fuentes del Derecho Histórico de Vizcaya*, Madril: Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2021.
- MONTERO GARCÍA, Manuel: *En el nombre de Bilbao*, Madril: Silex, 2017.

- ORTEGA BERRUGUETE, Arturo Rafael: “La población de Bilbao. 1800-1870”, *Vasconia: Cuadernos de historia - geografía*, 10. zenbakia 1988, 47-62. orr.
- PALACIOS MARTÍNEZ, Roberto; PRADO ANTÚÑEZ, Ana Isabel: *Bilbao. Bizkaiko herrien monografiak*, Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, 2015.
- RUBIO POBES, Coro: *Liberalismo y fuerismo en el País Vasco (1808-1876)*, Gasteiz: Fundación Sancho el Sabio, 2002.
- SANTOS SALAZAR, Igor: “Apuntes sobre la organización jurisdiccional del territorio vizcaíno en los siglos XII-XIV”, *Studia historica. Historia medieval*, N° 22. zenbakia, 2004. 33-56. orr.
- SOBREQÜÈS Y CALICÓ, Jaume: *Historia de Barcelona*, Bartzelona: Rosa Vents, 2008.
- TOMÁS Y VALIENTE, Francisco: *Manual de historia del Derecho español*, Madril: Tecnos, 1997.
- URRUTIA BADIOLA, Andrés M.: *Análisis sistemático de la ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho civil vasco*, Madril: Dykinson, 2020.
- VICARIO DE LA PEÑA, Nicolás: *Derecho consuetudinario de Vizcaya*, Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, 1995.
- *150 aniversario del Anteproyecto de Ensanche de Madrid de Ensanche de Madrid aprobado el 19 de julio de 1860*, Madril: Madrilgo hirigintza eta etxebizitza Arloa, 2010.

Dokumentu juridikoak:

- *1861eko apirilaren 7ko Legea “Ley de Ensanche”*, Madril: Gaceta de Madrid, 1861.
- *5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzkoa*, Madril: Estatuko Aldizkari Ofiziala.
- *Bizkaiko Lurralde Historikoko forugabeko lurraldeen mugaketak, 1994ko maiatzaren 4ko Akordioari atxikiak*, Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia.
- *Escritos de Unión y Concordia (1630)*. www.forulege.com
- *Constitución política de la monarquía española. Promulgada en Cádiz a 19 de marzo de 1812*. www.congreso.es
- *Fuero nuevo de Vizcaya*. Durango: Leopoldo Zugaza, 1976.
- *Ley de 25 de octubre de 1839, de confirmación y modificación de los Fueros de las Provincias Vascongadas y de Navarra*.. www.lexnavarra.navarra.es

Biografiak:

- *De la Plaza Carlos, Salazar.* www.aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus
- *Gregorio Balparda y Herrerías.* www.bilbaopedia.info/gregorio-balparda-herrerias
- *Nicolás Vicario de la Peña.* www.dbe.rah.es